



JOSEAN BENGOTXEA

«Interpretatzea da
gizakia bera
ezagutzeko tresna»



Tuberkulosia

Farmazeutikek
ahaztu duten
pandemia hilgarria

Isabel Uria

«Emakumeok
azkar egiten diegu
uko gure eskubide
eta aldarrikapenei»

Sestao krisian


Astelehen goiz bat
langabezia tasa
handiena
duen herrian

Net Hurbil

Uraren gestioa
pribatizatzen
hasiak dira
multinazionalak

Seaskako ikastolak

Gurasoen lana
ezinbesteko,
urteko
aurrekontuak
osatze



15. saioa
Aste
honetan...



► Ongota hizkuntza desagertze bidean

Ongota hizkuntza, eta haren ondorioz, identitatea nola galtzen ari den ikusten ari dira egun Etiopia hegoaldeko Ongota gizon-emakumeak. Ongota komunitatea 120 bat pertsonak osatzen badute ere, zazpi dira soilik hizkuntzari eusten diotenak.



► Gagarinen etorria

Garbine Ubedaren blogetik hartua: "Ez naiz epopeia zalea sekula izan. Aitor dut, hala ere, luri Gagarinen balentria salbuespenekotzat jo izan dudala beti, hura protagonista izan zuen gertakariaz sortutako epika euforiko eta nobeleskoak arreata piztu izan didala gaia aipatu izan den aldiko."



► Herri Urrats

Hurbil daukagu maiatzeko bigarren asteburua eta hurbil, beraz, aurtengo Herri Urrats festa. Prest dago Senpereko aintzira Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko festa nagusia jasotzeko. Aurtengoa Kanboko Xalbador ikastolako lanen gastuei aurre egiteko antolatu dute.



Lehiaketa

Osatu marrazkia originaltasunez eta bidali erantzuna beranduegi@argia.com helbidera.

Saria: Iruñeko Planetariumerako 2 sarrera.

www.argia.com

www.beranduegi.tv



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Kortá.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguera



• NON ZER •

2011ko maiatzaren 8a, 2.275. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Tzibi Juaristi:** «Athleticekoa izatea soilik bada pozik egoteko nahikoa arrazoi». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Tuberkulosia.** Ezkutatutako pandemia. UNAI BREA / 5

Pertsonaia

- **Isabel Uria:** «Niretzat feminismoa da ezeri uko ez egitea». UXUE ALBERDI / 10

Gaiak

- **Seaskako gurasoen zama.** GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 16

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Esperientzia. UXUE APAOLAZA / 20
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTA / 21
- **Putak:** XXI. mendeko heroiak. JOSEBE ITURRIOZ / 22
- **Txandan** Harrituta ala? JUAN RAMÓN MAKUSO / 22
- **Aire!** ROSA MARIA MARTIN SABARIS / 23
- **Hiruko txikian** Joan dira. JOXEMARI OSTOLAZA / 23
- **Bertso berriak** Adopzio irregularren auziari jarriak. JEXUX MARI IRAZU / 24

Erdiko kaiera

- **Josean Bengoetxea:** «Probokazioa da jendea nahi duzun bidetik eramatea». MIKEL GARCIA / 25
- **Liburuak** ARITZ GALARRAGA / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** UNAI BREA / 33
- **Ihesi Orio (Gipuzkoa).** Balearen bideak. IÑAKI ITURAIN / 34
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 36
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 38
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 39
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

Termometroa

- **Sestao.** Krisialdiaren kronika. ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN / 41
- **Aurkezle ikastaroa.** Jendaurrean aritzeko trebatzen. SAIOA LABAKA / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Ur teknologikoa: iturriak nola pribatizatu dituzten. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Badaezpada ere.** IÑAKI MURUA / 50



“Athleticekoa izatea soilik bada pozik egoteko nahikoa arrazoi”

Tzibi Juaristi | Hankapilotaria

Defentsa ona du,
deabruaren abokatuaren beharrik gabe.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Iñigo Azkona

Hasieran erraz irabazten zenituzten ligak, orain, berriz...

Inoiz ez da erraza izan. Bestela zergatik ez du talde bakar batek ere guk lortu duguna lortu?

Orain esango didazu besteak kanpoko jendea hasi direla fitxatzen...

Bada, egia da azken urteotan atzerritar asko etorri direla, baina fitxa dezatela nahi dutena. Onenak Euskal Herrian gaudela dudarik ez daukat.

Tira, zuek ere fitxatu duzue inoiz gipuzkoarren bat...

Baten bat bai, eta falta direnak! Zer edo zergatik etorriko dira...

Dena den, neskak zarete Athleticek berriz gabarra ateratzeko aukera bakarra.

Jende askok zuk bezala pentsatuko du, baina nahiko erratuta zaudete. Ziur nago mutilek laster aterako dutela berriz.

Ez ote da lehenago herdoilduko!

Bai nesken, bai mutilen taldeei esker, Athleticeen zaleek behintzat badute zerekin poztu. Athleticekoa izatea soilik bada pozik egoteko nahikoa arrazoi.

Aizu, sakrilegio handia da Kopa oraindik irabazi ez izana...

Horri ez nioke sakrilegio deituko, gehienbat monarkia ez zaidalako gustatzen.

Zure curriculumean dio Athleticera heldu zine-la Leioatik 2002an. Leioa osoa heldu zen Athleticera 2002an.

Leioan geneukan onena talde osoa zelako: jokalaria, teknikariak, zuzendaritza. Hala ere, bizpahiru jokalaria garrantzitsu fitxatu genituen.

Eta kasu etorkizunari: emakumeen futbolearen ere, Barça eta Madrilaren hegemonia aurki.

Ez dut uste, Madrili ez zaio emakumezkoen taldea interesatzen. Hala izango balitz ere, euskal taldeek ez genieke hegemonia lortzen utziko.

Atzelari guztiek duzue gogor fama, Athleticekoek zer esanik ez. Hainbesterako al da?

Badakizu, batzuek egiten dute lana, eta beste batzuentzat da fama.

Galderak erantzuten behintzat, finagoa zara.

Benetan nolakoa naizen jakin nahi izanez gero, etorri partidu bat ikustera!

Jokalaria bizitza amaitzean, zer, entrenatzaile agian, neba bezala?

Neba bezala zaila izango da, erreferentziatzat daukat eta. Baina saiatu, saiatuko naiz... ■

Tuberkulosia

Ezkutatutako pandemia

Munduko heriotza eragile nagusietakoa izan arren, gutxi akordatzen gara tuberkulosiaz herrialde aberatsenetan bizi garen gehienok, guztiz gainditutako zerbait bailitzan. Ez da hala ordea. Milaka pertsona hiltzen ditu egunero gaixotasun honek, eta sendatzen direnak sekulakoak sufrituta sendatzen dira. Zaharregiak dira tuberkulosiaren aurkako farmakoak.

UNAI BREA



DANIE NEL

ORAIN DELA EHUN URTE, tuberkulosia eta heriotza sinonimoak ziren Euskal Herrian. Wikipediak pasarte bat du horri buruz, *Epidemiak Euskal Herrian* artikuluan. Bertan esaten denez, XIX. mende amaieran, Industria Iraultzarekin batera, hirietan jendea pilatzen hasteak gaixotasunari atea zabaltu zion. Bizkaian, herrialderik industrializatuenean, tuberkulosia endemikoa izan zen XX. men-

dearen erdira arte. Mende aldaketako urteetan, Bilbon, 1.000 biztanletik bost inguru hiltzen ziren gaitzaren erruz, urtero. Geroago etorri ziren tuberkulosia sendatzen duten farmakoak, eta Bilbon, nola Euskal Herrian eta Mendebalde osoan, tuberkulosia gure imajinariotik desagertu zen.

Alta, XXI. mendeko datuek diote tuberkulosia munduko pandemiarik larrienetakoa

dela. Egunero 5.000 pertsona hiltzen dira tuberkulosiagatik, gaitza sendatzeko botikak aspalditxo existitzen diren planeta honetan. Urtero 1,8 milioi. HIESaren ondotik jende gehien hiltzen duen eritasun infekziosoa da. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) emandako datuen arabera, iaz 9,2 milioi lagunek jasan zuten tuberkulosia. Kalkulatzeko da, gainera, hiru pertsonatik batek duela gorputz barruan tuberkulosia eragiten duen bakterioa (*Mycobacterium tuberculosis*), egoera latentean.

“Bakterioarekin infektatuta dagoen munduko biztanleriaren heren horretatik, %5ak aukera asko dauka gaixotasuna garatzeko”, azaldu digu Laia Ruizek, Bartzelonako Planeta Salud GKEko kideak; “portzentaje hori %15eraino handitzen da umeen kasuan, edo sistema immunologikoa ahulduta daukatenengan”. Horregatik hain zuzen, GIB birusa daukaten asko gaixotzen dira tuberkulo-

siaz; are gehiago, GIBa dutenen artean lehenengo heriotza kausa da tuberkulosia. Europa zaharrean iraganekotzat dugun gaitz hau zabalduz joan da azken urteetan, baita gurean ere, besteak beste GIBa zabaltzeko delako. Baina ez da hori arrazoi bakarra. Munduko eskualde askotan, herrialde garatueta zein garatu gabeetan, bizi-baldintzek okerrera egin izanak ere lagutzen dio tuberkulosiari.

“Ahaztutako gaixotasunetan, tuberkulosia da ahaztuena”, dio Ruizek, “pentsatzen dugu dagoeneko ez dela existitzen, eta existitzeko-tan, ‘axola ez duen jendeari’ eragiten diola. Pobreei”. Tuberkulosia eta bazterketa soziala eskutik doazela mediku guztiek dakite. “Pisu batean bizi bazara beste hogeitak pertsonarekin batera, lanik ez daukazulako, laguntzarik jasotzen ez duzulako... errazagoa da gaixotzea. Ez da higie arazoa, aireztatzearena baizik”. Oro har, jende gehiagok dauka tuberkulosia hirietan landa-eremuan baino, berdin Lehen Munduan zein Hirugarrenean.

Euskal Herrian eragin eskasa

Mundu osokoekin konparatuta, Euskal Herriko gaixotze-tasak oso txikiak dira. Iaz, Tuberkulosiaren Aurkako Egunaren kariatara –martxoaren 24a da–, Osakidetza 2009ko datuak plazaratu zituen: 255 kasu diagnostikatu ziren EAE osoan, 100.000 biztanleko hogeitak. Bilbon XX. mende hasieran hiltzen zirenak baino gutxiago. Kopuruek erakusten zuten tuberkulosiak behera egin duela nabarmen Araban,

Bizkaian eta Gipuzkoan, baina Osakidetza arduradunak, haatik, kezkatuta ageri ziren, garatutako herrialde batentzat tasa handiegia zelakoan. Kopuruek nahi beste ez murriztea emigrazioarekin lotzen zuten, eta zehatzago, tuberkulosia endemikoa den herrialdeetatik gero eta etorkin gehiago iristearekin. Nafarroan, berriz, 51 kasu diagnostikatu ziren 2010ean: 100.000 biztanleko zortzi. Ipar Euskal Herriko daturik ez dago, baina Frantziako eta Espainiako estatuetako datuak alderatuta,

erraz antzematen da Hexagonoan tuberkulosiaren eragina askoz txikiagoa dela: 5.000 lagun inguru gaixotzen dira urtero; Espainiako Estatuan, berriz, 13.000, biztanle gutxiago edukita ere.

Kasu gutxi, eta ia hildakorik ez. “Lehen Munduan norbait hiltzen bada tuberkulosiz, aldi berean beste gaitz bat duelako da, edo diagnostikoa beranduegi egin diotelako”, diosku Laia Ruizek. Esan dugunez, XX. mendearen erdian tuberkulosia senda zezaketen hainbat farmako garatu zituzten, eta munduaren alde aberatsean epidemia kontrolatu zen. Horrekin batera, farmazienpresek ikertzeari utzi zioten, Planeta Saludeko kidearen hitzetan. “Behin lortuta herrialde garatueta jendea harengatik ez hiltzea, tuberkulosiak lehentasuna izateari utzi zion, baina ez enpresa farmazeutikoentzat bakarrik, jendarte osoarentzat baizik, nire ustez”.

nez, XX. mendearen erdian tuberkulosia senda zezaketen hainbat farmako garatu zituzten, eta munduaren alde aberatsean epidemia kontrolatu zen. Horrekin batera, farmazienpresek ikertzeari utzi zioten, Planeta Saludeko kidearen hitzetan. “Behin lortuta herrialde garatueta jendea harengatik ez hiltzea, tuberkulosiak lehentasuna izateari utzi zion, baina ez enpresa farmazeutikoentzat bakarrik, jendarte osoarentzat baizik, nire ustez”.

Hilabeteak dirauen tratamendu gogorra

Ondorioz, gaixotasunaren tratamenduak orain dela mende erdikoa izaten segitzen du. Eta sendatu, sendatzen du, baina eritasuna bera baino infernu latzagoa pasaraziz gaixoari. Tratamendu sinpleena bakterioa egoera latentean baina gaitza garatu barik daukatenei ematen zaie –“norbait gaixotzean, inguruko guztiei egiten zaizkie probak, ea bakterioa daukaten”, argitu digu Ruizek–: lehenbizi, lau farmako hartu behar dira hiru hilabetez, eta ondoren dosia farmako bira jaisten da beste lauzpabost hiletan. Gaixotasuna aktibatuta dagoenean, berriz, gerta liteke bakterioa erresistentziarik gabekoa ala erresistentziaduna izatea. Lehenengo kasuan, aipatutako lau farmako horiek hartu behar dira karkaxaren analisisetan bakterioaren inolako arrastorik agertzen ez den arte, eta hori hala izateko sei edo zazpi hilabete behar izaten dira. Ondoren, farmako birekin jarraitu behar da medikuak tratamendua eteteko agindu arte.



DONALD WEBER / ATLAS PRESS

Tuberkulosi mota sinpleenentzako tratamenduetan, gaixoak lau farmako hartu behar ditu hainbat hilabetez. Haien bigarren mailako ondorioak gaitzaren sintomak baino gogorragoak izaten dira.

BCG txertoa: Euskal Herriko hiru administrazioetan politika bana

Tuberkulosiaren aurkako txertoa, BCG, ez da sistematikoki erabiltzen Euskal Herri osoan. Gaur egun, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan baizik ez zaie ematen jaioberri guztiei. Nafarroan 1980an utzi zioten txertatze sistematikoa egiteari, Espainiako Estatuko gainerako erkidegoetan bezala. Hala, EAE da BCGa bere egutegian mantentzen duen bakarra.

Ipar Euskal Herria, berriz, txertaketa sistematikoa egin zen 2007ko uztaiera arte, baina urte hartan Frantziako osasun erakundeek erabaki zuten aurrerantzean

tuberkulosia izateko arrisku handiena zutenei soilik emango zitzaizela BCGa.

Jaioberriak hilabete bat bete baino lehenago ematen da txertoa. "Askoren ustez BCGak ez du ia ezertarako balio", azaldu du Laia Ruizek, "umeengan bakarrik funtzionatzen duelako, eta ez beti". Ikerketen arabera, BCGaren eraginkortasuna %0 eta %83 artekoa da, eta helduaroan ez du inongo eraginik. "Txertoak oso inpaktu eskasa dauka epidemian, baina balio du behintzat bakterioak meningitisik ez sortzeko oso ume txikiengan".

Farmakoen kontrako erresistentzia daukaten tuberkulosi-bakterioak mutazioen ondorioz sortzen dira, gaixoak ez duelako tratamendu osoa era egokian hartu. "Ezin zaio beti horren errua gaixoari berari bota", iritzi dio Ruizek, "sarritan, herrialde pobreetan batez ere, sendagaiak ez dira garaiz iristen eta behar baino lehenago eten behar da tratamendua". Beste batzuetan, aldiz, sendatzen ari dela sentitu ahala, gaixoak botikak uzten ditu. Kritikatzeke moduko jarrera dirudi, baina epairik egin baino lehenago komeni da jakitea tuberkulosiaren kontrako botikek zer nolako ondorioak dauzkaten: neke ikaragarria, gibelaren intoxikazioa, gernua gorritzea, ikterizia, gora-galea... Aldi baterako itsu geratzea ere gerta liteke. "Nekea da txarrena", dio Ruizek, "gaixotasunak berak baino okerrago uzten zaitu, horregatik dago tratamendua behar baino lehenago uzteko tentazioa, une bat heltzen baita non ez zaren tuberkulosiz gaixo sentitzen, farmakoak hartzeaz baizik".

Arrazoiak arrazoi, ondorioa da sendagaien aurkako erresistentzia daukaten bakterioak

**Sendagarria den arren,
tuberkulosiak bi milioi pertsona
hiltzen ditu urtero munduan.
Batzuetan farmakoak ez dira
iristen, bestetan beranduegi
egiten da diagnostikoa**

sortu eta zabaldu direla. Halako batez kutsatuta dagoenak benetako kalbarioa sufritu behar du sendatzeko, eta ez du beti lortuko. Bakterio erresistenteen artean multzo bi daude: MDR (multierresistenteak) eta XDR (biziki erresistenteak). Bai bataz zein besteaz sendatzeko, askoz farmako gehiago hartu behar

dira askoz denbora luzeagoan, eta kimioterapia moduan. MDRaren kasuan, Laia Ruizek dioenez, gutxienez bederatzi hilabete irauten du tratamenduak, baina ohikoa da bi urtera arte luzatzea. Izugarritzko sufrikarioa eriarantzatzat, eta gainera garestia: MDRaren kontrakoak 2.000 dolar inguru balio du kasurik merkeenean, hau da, bederatzi hilabete eman gero farmakoak hartzen; are garestiagoa da XDRarena. Alde ederra erresistentziarik gabeko bakterioen aurkako tratamenduekin, horiek hogeita dolar ingurutan daude eta. Behintzat, zerbait ona badu mende erdi eman izanak botika berririk bilatu gabe: patenteak agortuta daude honezkero.

Prezioa ikusita ulertzen da nola litekeen gaixotasun sendagarri batek egunero 5.000



txondorra
erretegia

☎ 943 794 276
Bizkaia pasealekua, 9
Arrasate (Gipuzkoa)

Aspaldiko bidaidea

Tuberkulosia gaixotasun infekzioso da, familia bereko hainbat bakterioek eragin dezaketena. Espezie ezagunena, zabalduena eta jende gehien gaixotzen duena *Mycobacterium tuberculosis* da, Koch-en bazilo ere deitua, Robert Koch alemaniar medikuaren omenez. Hark aurkitu zuen mikroorganismoa, 1882an.

Gaitzak birikei eragiten die batez ere, baina gorputzeko ia edozein atali eraso diezaioke. Hala gertatzen da lau kasutik batean. Gaixoak ez du gogorra izango du gutxienez hamabost egunetan, eta baita ere sukarra, izerdia, nekea, pisu galera, hotzikarak eta zorabioak. Bakterioa airetik transmititzen da, tuberkulosiak jota dagoen norbaitek doministiku edo ez du egi-

WWW.MEDICINADEFAMILIA.ES




Mycobacterium tuberculosis.

ten duenean, edo besterik gabe hitz egiten duenean. Doministiku bakar batean infekzioa kutsatzeko gai diren 400.000 tantatxo inguru jaurtitzen dira.

Tuberkulosiari hamaika izen eman izan zaio historian zehar. Ezagunena, behar bada, izurrite zuria da. Milaka urte darama gure artean –15.000 eta 20.000 bitartean, kalkulatu da–, eta gizakiok ezagutzen dugun lehen gaixotasunetakoa da. Robert Kochek esana da: “Gaixotasun batek gizateriarentzat daukan garrantzia eragin duen hildakoen kopuruarengatik

neurtu behar bada, tuberkulosia askoz garrantzitsuagoztat jo behar dugu gaixotasun infekzioso beldurgarrienak baino”.



CONNECT.IN.COM

Tuberkulosia detektatzeko metodoak guztiz zaharkituta daude. Ondorioz, diagnosia berandu iristen da askotan, eta beste askotan ez da fidagarria.

pertsona akabatzea munduan. Hirugarren Munduan gaixo asko geratzen dira tratamendurik gabe beraiek edo beraien gobernuek dirurik ez dutelako, edo, gobernuen kasuan, beste zerbaitetan gastatu nahiago dutelako.

Hala ere, gauzak hobetuz doaz alor honetan, Ruizek jakinarazi digunez, eta herrialde ez-aberatsetako gobernu askok osorik finantzatzen dute hogei dolarreko tratamendua. 2.000 dolarrekoarekin, berriz... ahal dutena egiten dute. OMEk adierazi duenez, mundu osoan bi milioi pertsona kutsatu daitezke MDR motako tuberkulosiaz 2015. urtera bitartean.

Gabezia larriak diagnostikoan

Tuberkulosiak eragindako heriotza guztien arrazoa ez da, ordea, sendagai falta. Asko eta asko –Ruizek portzentaje zehatzik eman ez badigu ere– sendagaiak dauden lekuetan hiltzen dira. Normalean, diagnostikoa beranduegi iritsi delako, edo besterik gabe okerrekoa delako. Alde batetik, azpimarratu behar da biriketakoak ez diren tuberkulosiak (ikus goiko koadroa) zailagoak direla diagnostikatzeko. Bestalde, hamarkadetako ikerketa ezak eragin du diagnostiko arruntena ere erabat zaharkituta egotea. Mugarik Gabeko Medikuen (MGM) elkartearen 2010eko *erronka medikuen* txostenean irakur dezakegu duela 130 urte asmatutako metodo bat izan dela, iaz arte, norbaitek tuberkulosia daukan ala ez jakiteko bide bakarra: gaixoaren kaxkarra hartu eta mikroskopiotik begiratzea bezain sinplea. Baina metodoak huts egiten du bitik batean, GIBa daukatenean kasuan batik bat. Gainera, bakterio erresistenteak atzemateko hiru hilabete irauten duten probak egin behar dira; amaitu orduko, hilda daude gaixotako asko.

Iaz onartutako sistema berriarekin aski dira 100 minutu diagnostikoa burutzeko. Aurrerapauso nabarmena, MGMren ustez, baina ez nahikoa. Besteak beste, garestiegia delako: “Proba berriarekin, oraindik ere

beharrezkoak dira aparatu sofistikatu bat, elektrizitatea eta mantenu-lan konplexuak. Aparatuak, kasurik merkeenean, 17.000 dolar balio du. Garestiegia da erietxe bakoitzean bana edukitzeko, eta ezin da erabili oso urruneko eskualdeetan”. Arazo horiek guztiak gaindituko dituen diagnostiko-metodoa lortzeko urteak igaro beharko dira, MGMk berak txostenean onartzen duenez. “Proba erraz eta fidagarria ez daukagun bitartean, tuberkulosi gaixo asko tratamendurik jaso gabe hilko da”.

Galdutako denbora berreskuratu nahian

Orain arte deskribatu dugunak atsekabea besterik ezin du eragin, baina azkenerako utzi ditugu itxaropen zantzuak. Izan ere, mende erdi inguru ia ikerketarik egin gabe eman eta gero, azken hamarkadan biderkatu egin dira gaitzaren kontrako ahaleginak. Erakunde publikoen bultzadaz, jakina, baina farmazia-enpresak ere, ohiko irabaziei uko eginez, igo egin dira gurdira, batzuk gehiago kostata beste batzuk baino. “Uste dut azkenean konturatu direla, edo ikusarazi diegula, beren negozioaz gain badutela jendartearekiko ardura bat”, dio, baikor, Laia Ruizek.


Azken urteotan, hainbat PDP sortu dira tuberkulosiaren alorrean, alegia, produktu jakinak —kasu honetan sendagaiak— sortzeko helburuarekin eratutako elkarte publiko-pribatuak. Xedea, esan gabe doa, gaitzaren tratamendua laburtu ahal izatea eta bigarren mailako ondorioak ahalik eta gehien gutxitzea da. PDPrik garrantzitsuena TB Alliance da. GlaxoSmithKline farmazeutikaren parte hartzearekin, sendagai berria sortu dute,

PDPak irabazi asmorik gabeko elkarteak dira. Tuberkulosiaren eremuan sendagaiak lortzeko lanean dabilen TB Alliance da handiena.

Argazkian ageri dena, berriz, Aeras-eko ikertzaile bat da. Gaitzarentzako txerto berrien bila dihardute Aerasen.

uneon ikerketa kliniko fasean dagoena. Dena ondo badoa, bospasei urtetan medizina hori erabiltzeko moduan egongo litzateke, dio Ruizek. “Baina sendagai bakarra litzateke”, azpimarratu du, “eta tuberkulosiari, bere ezaugarriengatik, farmako-taldeekin egin behar zaio aurre, bestela aukera eduki dezake mutatzeko”.

Itxaropena badago, beraz, baina ez dezala inork egun batetik besterako emaitzarik espero. Galdutako 50 urteak zulo handiegia dira, eta oraindik ere, ahaleginak ahalegin, gehiago da falta dena dagoena baino. “Askoz gutxiago ikertzen da tuberkulosia beste gaixotasun infekzioso batzuk baino, HIESa esaterako”, esan digu atsekabetuta Ruizek. “Baliabideak falta dira. Kalkulatzen da urtero 2.000 milioi dolar inbertitu beharko liratekeela tuberkulosiari buruzko I+G-an, eta une honetan 500 milioi besterik ez gara gastatzen ari”. Hirutik batek daukagun bakterio baterako ez dirudi gehiegi. ■



AERAS

laia
sagardotegia

arkolla auzoa 33 • Hondarribia
Tel.: 943 646 309
info@laiaerretegia.com

www.laiaerretegia.com

Isabel Uria

«Niretzat feminismoa da ezeri uko ez egitea»

Munduari buelta eman ezin dionean bere burua jartzen du hankaz gora.

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Dani Blanco

Borroka askotan aritu zara. Nola eratu da zure izaera konprometitu eta borrokalaria?

Lehenengo, etxean. Gure garaiko emakume guztiok genuen askeago izateko amorrua: ez genuen hain arduratsuak izan nahi, arduraga-beagoak eta gaiztoagoak eta ganorabakoagoak izateko eskubidea nahi genuen! Gainera, pentsa, ni, emakumea izateaz gain, zazpi anai-arrebetan zaharrena nintzen. Ni ez nengoen “tokatu zitzaidana” onartzeko prest, nigandik espero zitekeena emateko prest. Ezin genuen ezer egin gizon batek (aitak edo senarrak) baimenik eman ezean. Baina nire formakuntza politikoaren oinarria Sarrikoko unibertsitatean eman zela esango nuke, zientzia ekonomikoak ikasten aritu nintzenean, Carlos Castilla del Pino pentsalariaren eta Lidia Falcón bezalako abokatuen hitzaldietan. Gero, Bizkaiko Emakumeen Asanbladan sartu nintzen, eta militantzia eta formakuntza eskutik joan ziren abortu eskubidearen aldeko borroketan, dibortzio eskubidearen aldekoetan... Hortik aurrera, emakume talde askotan hartu dut parte, formatzen jarraitze-ko asmoarekin.

Gurasoek ikasketak Sarriko jarraitzea debekatu zizutenean erabaki zenuen maistra izatea.

Zientzia ekonomikoak ikasten ari ginen garaian Sarriko errebeldeen haztegia zen. Polizia, aurreneko aldiz, gure fakultatera sartu zen 1967an. Ordura arte debekatuta zuten unibertsitateetan sartzeara. Eta gurasoek Sarriko uztera behartu ninduten, etxeko lanetan hasteko edo zientzia ekonomikoekin zerikusirik ez zeukan beste zerbait ikasten hasteko aginduz. Aurrez, gau-eskoletan aritua nintzen, eta debeku haren aurrean maistra izatea erabaki nuen. Nire bizitzan hartu dudana erabaki onenetarikoa izan da. Dena

den, irakasle hasi bezain pronto Saharara bidali zuten nire bikotea, eta berarekin joan nintzen. 1974. urtearen amaiera zen, eta 1976ra arte bizi izan ginen bertan. Han eza-gutu nituen emakume arabiarrek eta feminismo arabiarra.

Zer da zuretzat feminismoa?

Niretzat feminismoa ezeri uko ez egitea da. Ama, emazte, langile, lagun edo maitale izan nahi dudana hautatu behar ez izatea. Nik dena izateko eskubidea nahi dut, ez diot ezeri uko egin nahi beste ezer lortzeko, eta aukeratzeko libre izan nahi dut.

Euskal Herrian nolakoa izan da feminismoaren garapena zure gazte garaitik gaur egun arte?

Hasieran oso argia zen feminismoaren jarduna: eskubide jakin batzuk lortzeko eta kode zibila aldatzeko lan egiten genuen. Dibortzio—eta abortu— eskubideak eskuratu eta aitaren edo senarraren menpe jartzen gintuen kode zibila aldatzea lortu genuenean berdintasunaren alorrean hasi ginen lanean. Eta lan hori ez da oraindik bukatu. Garaitu hartan hasi ginen hezkidetza lantzen ere, eta lan-fitxa mordo sortu genuen, baina irakasle feministok baino ez genituen jartzen praktikan. Desberdintasun-

Nortasun agiria

Isabel Uria Sestaon jaio zen duela 61 urte, eta zazpi anai-arrebetan zaharrena da. Maistra erretiratu berria, feminista eta Sahararen aldeko ekintzailea da. Hainbat emakume taldetan hartu du parte eta, gaur egun, Gobernu Kanpoko Erakundeetan genero ikuspegia txertatzeko lanean dihardu.





Misoginia

"Gizartea misoginoa da, eta emakume gisa lortzen dugun eskubide bakoitza ordainaraziko zaigu. Ama izan nahi baduzu, horrek prezioa izango du, ez baduzu izan nahi ere prezioa izango du, lesbiana izan nahi baduzu berdin, edo senarrak adina eskubide nahi badituzu... Ezin dugu inozoak izan, gure askatasunak prezioa du oraindik, eta oso garestia. Kolektibo gisa odolez ari gara gure askatasuna eta eskubideak ordaintzen, eta odol hori gelditzen ez den bitartean ez dugu eskubiderik irabazi, trukea baino ez da, eskubideak odolaren truke".

naren teoriak ere orduan iritsi zitzaizkigun, eta ulertu genuen ez gurela gizonak bezalakoak izan behar, eskubideetan haien parekoak baizik. Ordura arte itsututa geunden berdintasunarekin, eta eztabaida haiek mingarriak izan ziren kasu batzuetan. Gainera, militantzia bakarraren eta militantzia bikoitzaren arteko eztabaidak ere piztu ziren: emakume asko, feministak izateaz gain, alderdi politikoren batekoak ziren, sindikaturen batekoak... Militantzia anitza zuten horiek; batzuetan, bigarren mailako feministatzat jotzen ziren, eta horrek ere min handia egin zuen.

Politika eta emakumeei buruzko eztabaidak etorri ziren gero, emakumeek alderdi politiko gisa antolatu behar luketen ala ez erabakitze-ko. Zein iritzi duzu zuk?

Alor politikoa garrantzitsua da eskubide jakin batzuk lortzeko, baina garai hartan errieta batzuk izan ziren. Politikan aritu nahi zuten emakume batzuk botere-gosea zuten, beren buruetan segurtasun ikaragarria erakusten zuten, eta beste guztioi gauzak euren erara ikusarazi nahi zizkiguten. Guri *reinona* batzuk iruditzen zitzaizkigun. Horrekin batera, lehen aldiz uztartu ziren feminismoa eta ezker abertzaleko mugimenduak. Feminismoa nazio askapenerako mugimenduekin bateragarria zela esaten hasi ziren emakume batzuk. Politika tartean sartu zenean bereizten hasi ginen eta, azkenean, gutariko bakoitza alor jakin

batean espezializatu zen: solidaritatean espezializatu ginenak generoaren eta garapenaren alorrean hasi ginen lanean, abertzaleak nazio askapenerako mugimenduaren eta generoaren esparruan, asanbladakoak alderdi politikoez kanpoko feminismoan, Plazandreok eta Lanbroakoak alderdi politiko feministatan... Ordutik, nor bere esparruan ari da lanean, eta martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko ekitaldiak antolatzeke eta proposamen feminista bateratuak egiteko elkartu ohi gara alderdieta-ko emakumeak, sindikatueta-koak, GKEeta-koak, ekologistak...

Beharrezkoa iruditzen zaizu lanketa batzuk sexuaren arabera bereizitako taldetan egitea?

Bai, behar-beharrezkoa da lanketa batzuk emakume taldeetan eta beste batzuk gizon taldeetan egitea. Emakume taldeak euren eskubideen alde lanean hasten direnean, inguruko gizon asko —eta emakume batzuk ere bai— izutu egiten dira, eta ez dute jakiten egoera berriaren aurrean nola kokatu. Baina berdintasunaren alde zerbait egin nahi duten gizonak, batetik, emakumeen borroka errespetatu behar lukete eta, bestetik, guk egin genuen bezala, ikasi egin behar lukete sexuaz, generoaz, hezkidetzaz... Guk ezin dugu beraien partez ikasi, eta ez dagokigu inoren psikologo lana egitea. Emakumeok ezin dugu gizonen irakasle lanik egin, norberak egin behar du bere bidea. Baina hau berdin gerta-

tzen da borroka guztietan, Sahararen aldekoan, adibidez. Ni hara banoa euren borroka babesteko da, eskatzen didaten hartan laguntzeko. Ez naiz zer egin behar duten esatera joango, eta ez diet beren energia nire zauriak sendatzen inberti dezaten eskatuko. Ikasi nahi badut aholku eskatuko diet irakurri beharreko liburuen inguruan, elkarriketei adi egongo naiz eta oinarri teorikoa hartzen saiatuko naiz sahararren egoera hobeto ulertzeko. Emakumeon borrokarekin berdin-berdina da. Ignorantzia oso ausarta da. Uste dut emakumeok emakume taldeetan elkartu behar dugula feminismoan sakontzen jarraitzeko, gure beharrak identifikatu eta aurrera egiteko. Gure artean elkartzen ez bagara oso zaila da aurrera egitea.

Nola egiten duzue lan GKEetako genero batzordean?

Batzordea osatzen dugun emakume eta gizonen artean oinarri-oinarrizko premisa feminista batzuk onartzen dira, baina batzordeak, oro har, ez du oinarri feministarik. Horregatik, gai batzuk zeharka baino ez dira ukitzen, ez omen dira hautsak gehiegi harrotu nahi. Niri Dolores Juliano antropologo eta feminista klasikoak lagundu zidan gai honetan kokatzen: berak irakatsi zidan hitza emakumei eman behar zaiela, ezin dugula beste batzuen partez erabaki. Eta horretan indar egiten saiatzen naiz GKEetako genero batzordetik.

Eta nola jarduten duzue, zehazki, GKEen genero batzordetik? Nola txertatzen duzue genero ikuspegia lankidetzat proiektuetan?

Eusko Jaurilaritza orain dela gutxi hasi da GKEetako proiektuak onartu ala ez erabakitzeko horiek genero ikuspegia txertatuta duten ala ez kontuan hartzen. Guk, GKEetatik proiektu bat proposatzen den bakoitzean, helburuko herrialdean proiektu hori nola aplikatu erabakiko duen emakume talde bat

Esentzia

“Ez naiz esentzialismoaren aldekoa: behin ere ez dut uste izan emakumeok emakume izate hutsagatik onak eta zoragarriak garenik. Alderantziz, beti defendatu dut emakumeok nahi bezain kabroiak eta zitalak izan gaitzkeela, eta eskubide hori behar-beharrezkoa zaigula. Emakumeok nahi dugun guztia izan gaitzke: gaiztoak, dibertigarriak, krudelak, goxoak, bortitzak... Gizonak izan daitezkeen guztia izan gaitzke. Ez digu batere laguntzen esentzialismoaren teoriak! Gaiztoak izateko eskubidea ere izan behar dugu, militarrek izateko, meatzari eta puta izateko eskubidea. On eta txar guztia izateko eskubidea. Eta gaizki jokatu badugu epaitu gaitzateela, pertsona gisa, egindako ekintzengatik”.

egotea bermatzen dugu. Helburuko herrialdeko kudeaketa gizonaizkoen baino ez badute egiten, ez dago zereginik. Proiektu hori aplikatu den herrialdean euren askatasunaren alde antolatutako emakumeak baldin badaude haien parte-hartzea bilatzen saiatzen gara, maila guztietan. Proiektuak aseko dituen beharren artean euren beharrak ere kontuan hartzea bermatzen dugu, baita proiektuaren kudeaketan eta zuzendaritzan parte hartu dezaten ere. Hori da kooperazio proiektuetan genero ikuspegia kontuan hartzeak esan nahi duena. Zer gertatzen da? Kooperazioaren arloan ere, maskulino generikoa iruditzen zaiola normala askori, denentzako balio duena, eta askok uste du genero ikuspegiak gabe, orokorrean planteaturiko proiektu batek berdin asetzen dituela emakumeen eta gizonaizkoen beharrak.

Emakumeok lortu ditugun eskubide eta askatasunak oso ahulak direla diozu. Zergatik?

Orain bi urte berriro firmatu behar izan nuen “nik ere abortatu dut” manifestua, 20 urte neuzkanean bezala. Eskuinak abortuaren inguruan lortutako eskubide apurrak kendu nahi zizkigun, eta eskuinaren ofentsibaren aurrean kanpaina indartsua egin behar izan genuen lortutako eskubideak ez galtzeko. Azkar egiten diegu gure eskubideei uko. Eta gure aldarrikapenak segituan iruditzen zaizkigu gogorregiak, esajeratuegiak, krispatzailegiak... Emakumeok, gizonen gustuko izateko, nahi duguna egiteko eskubidea daukagu: bularrak operatu ditzakegu, takioiak jantzi, honela edo hala jantzita joan, beloarekin edo gabe... Niri horrek ez dit batere ardura, oso ondo iruditzen zait, emakumeak bere hautuak kontzienteki egiten baditu. Baina emakumeek uste izatea indarkeria matxistaren aurkako legean gizon gaixoen aurkako injustiziak daudela... Hori beste kontu bat da. Emakumeen aldeko lege edo arau bat ateratzen den bakoitzean segituan beldurtzen gara



Ermua

Liburu azoka maiatzaren 12tik 15era, Orbe Kardenala plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

eta esaten dugu “eta gizon gaixoak?”, “eta haserretzen badira?”, “ez ginen urrunegi joango, ezta?”... Barru-barruraino sartuta daukagu inposaketa, eta gure eskubide oinarrikoenak aldarrikatzeari ere gehiegi eskatzea iruditzen zaigu sarri.

Herrialde arabiarretako eta herrialde musulmanetako feminismoa da gehien ezagutzen duzuna. Zer ikasi duzu emakume arabiarrengandik?

Oso gaztetatik ezagutzen dut Sahara eta haien borrokaekin bat egin dut aspalditik. Nire izaera feministak emakume sahararrak, emakume arabiarrek sakonki ezagutzeko grina piztu zidan. Haien askapen borroka ezagutzen saiatu nintzen. Duela urte asko Emakume Internazionalista taldeetik emakume arabiarrek ekartzea lortu genuen: Aljeriakok, Marokoko Fatima Mer-nissi, sahararrak... Lauzpabost arabiar etorri ziren emakume feminista gisa zuten esperientzia kontatzera. Emakume musulmanak eta arabiarrek iker-tzerakoan hainbat gauzarekin ohartzen zara. Hasteko, musulmana esatea kristaua esatea bezain zehaztugabea da: zer zerikusi duzu zuk budua praktikatzeko duen brasildar kristau batekin? Saharar batek Yemengo emakume musulman batekin duen zerikusi berbera, ia ezer ez. Arabiarra esatea konkretuagoa da.

Prostituzioa

“Gaur egun prostituzioa abolitzea ezkontza abolitzearen parekoa litzateke. Utzi emakumei aukeratzeko, eta bermatu haien babesa eta ongizatea: trata ditzatela ongi, ordaindu diezaietela duinki, kendu diezaietela estigma, izan daitezela eskubidedun subjektu, beren istorioen protagonista. Abolizionismoa inposatzailea da, eta debekuak eta inposaketak dira zapaltzen gaituztenak. Gainera, erabaki horien atzean puritanismo nabarmena dago. Ai, gure Euskal Herri puritanoa! Puritanismo horrek emakumeen aurka egiten du: gure ama gaixoei ez zieten eskotea erakusten uzten, eta orain batzuei beloa kendu nahi diete, beste batzuei jarri, batzuei tanga erakustea debekatu, besteak bularrak operatzera bultzatu... Utzi gaitzatela bakean!”.

EZ DON HAMAHIRU, HAMABOST DON

“Askatzen lagundu didaten liburuen zerrenda”

- 1- *Cuatro ensayos sobre la mujer. La alienación de la mujer.* Carlos Castilla del Pino
- 2- *El segundo sexo.* Simone de Beauvoir.
- 3- Dolores Julianoren *El juego de las astucias, Excluidas y marginadas* eta *La causa saharai y las mujeres.*
- 4- Nawal al-Sa’dawi-ren *La cara desnuda de la mujer árabe* eta *Mujer en punto cero.*
- 5- *El cuerpo indispensable.* María-Milagros Rivera Garretas.
- 6- *Nacida de mujer.* Adrienne Rich.
- 7- *Género y feminismo.* Marcela Lagarde.
- 8- *La política de las mujeres.* Amelia Valcárcel.
- 9- *El pensamiento heterosexual y otros ensayos.* Monique Wittig.
- 10- *Siéntate y escucha.* Ellen Kuzwayo.
- 11- *Mis hijos, mi oro.* Debbie Taylor.
- 12- *El amor no es como nos lo contaron ni como lo inventamos.* Clara Coria.
- 13- *¿Qué sentido tiene la revolución si no podemos bailar?”* Jane Barry eta Jelena Djordjevic.
- 14- *Teoría King Kong.* Virginie Despentes.
- 15- *Devenir perra.* Itziar Ziga.

Zer berezitasun ditu feminismo arabiarrek?

Herri arabiarrek, Magrebetik hasi eta Afganistan arte, beren aurreko kulturetatik asko edan duten herriak dira: greziarrengandik, turkiarrengandik, desertuko nomadengandik, Damaskoko eta Bagdadeko kulturetatik... Beraz, oso garai aberasgarria izan zuten, baina ondoren baita beherakada kolonialista izugarria ere, herri gisa atzera eragin ziena. Ahal izan duten gisan atera dira kolonialismotik, nahikoa gaizki doakien neokolonialismoarekin, kasu askotan. Herri horietako emakumeak ere askatasunaren aldeko borrokan ari dira, baina euren oinarria desberdina da. Guk adinako indarrez egiten dute euren emantzipazioaren alde, oso emakume indartsuak dira, oso ausartak, baina, zenbait kasutan, guk lortutzat dauzkagun eskubideen alde ari dira borrokan. Dena den, badira guk baino lehenago lortu dituzten eskubideak ere.

Esaterako?

Lanerako eta ikasteko eskubidea. Koranean ikasketek garrantzi handia ematen zaie, eta hemen emakume ideala andre otzan eta etxe-koia, anbizio intelektual handirik gabekoa zen bitartean, han emakume inteligentea, artista, literaturaz eta pinturaz zekiena baloratzen zen. Bozka eskubidea ere 1950. urtean lortu zuten egiptoarrek. Pentsa, suitzarrek ia 80ko hamarkadara arte itxaron behar izan zuten. Herrialde arabiarretako emakumeek askatasun pertsonalaren alde borrokatu zuten lehenbizi, inoren baimenik gabe noranahi joan ahal izateko eskubidea; gero, ikasteko eta lanerako eskubidea; gero, ezkondu ala ez aukeratzeko eta ezkontzekotan norekin ezkondu aukeratzeko eskubidea... Hemen, emakume musulmanek buruz aitakeriaz jarduten gara ia beti, baina haiek oso argi daukate beren askapen bidea zein den, eta horretan ari dira. ■

argia.com Feminismoari eta beste hainbat konturi buruzko gogoetak luze gure webgunean.

Donostian

Uztailak 4, 5 eta 6

udako topaketak 2011



hh
hik hasi

www.hikhasi.com

UPV EHU
Hezkuntzen Teoria
eta Historia Saila

XII. HIK HASI Udako Topaketak

Donostian, uztailak 4, 5 eta 6

Matrikulatzeko azken eguna: maiatzaren 31

Espazio libreak, Euskara proben eraikuntza, Adimena nola eta norantz gidatu ikasten, Garapenerako Hezkuntza, Adimen emozionala, Psikomotrizitatea 2-3 urtekoekin, Sexuen hezkuntza, Maskaragintza, Berrikuntza Haur Hezkuntzan sentikortasunaren bidez, Jendaurrean hitz egiteko, Ahotsaren erabilera egokia, Lumatik ahora, ipuinak egokitzen, Konpetentzia matematikoa, Autismoa, Orkestra musikaterapeutikoak, Osasun mentala, Haurrentzako masajea, Elikadura eta eskola, Idazketa lantzen: ekoizpena eta sormena, Familia eta irakasleria, Ez dut zigortu nahi, Dibortzioa eta eskola, *O Happy Day!* Zertan jolastuko gara?, Jai ospakizunetan dantzan, Antzerkigintza, Yoga saioak irakasleentzat, Coaching, Sare-sozialak, nerabeak eta hizkuntza(k), *Irrien Lagunak* WEBean parte hartzeko, Irudiaren tratamendua, Irakaskuntza 2.0, Web 2.0. Google, Bideoa...

Informazioa: www.hikhasi.com edo 943 371 408

Seaskako gurasoen zama

Hileroko kuotak ordaintzeaz gainera, tokian tokiko festetan nahiz bestela antolatutako ekimenetan lan egin behar izaten dute Seaskako ikastoletako gurasoek. Jakina, baita Herri Urratsen ere, maiatzaren 8an. Gogoaren arabera hautua baino gehiago, estrukturaliki kontuan hartua den betekizuna da haientzat; ezinbestekoa, urteko aurrekontuak osatzeko.

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA

EZ DA OSO OHIKOA, nire lagun nahiz lankide arteko berriketetan bederen, euskal eskoletako gurasoen lanaz hitz egitea. Zer esanik ez, solasaldian parte hartzen dutenen artean guraso ez denik ere baldin bada. Baina hala egokitu izan zaidan aldietan, eta Seaskako ikastolen errealitateaz, funtzionamenduaz, irakasleez gaindikoa jardun moldeaz dakidan apurra azaltzeko aukera izan dudanean, harrituta begiratu izan didate solaskide askok, unibertso paralelo bat deskubritu izan banie bezala, azpi-munduko istorioak kontatzen

ariko banintz bezala. Jakina, Hegoaldeko solaskideak erretratatzeko ari naiz. Kilometroak, Nafarroa Oinez edo dena delako urteroko festa alde batera utzita, ikastolen alde lan egin beharra zer den ahantzitakoak, edo sekula ezagutu gabekoak, herri txikietako eskola koskorrak ere urruti dituztenak.

Neroni ere, unibertsitatera heldu bitarteko prozesu osoa ikastolan eginga banaiz ere, nekez imajinatzen nuen Hendaiaiko ikastolara helduko nintzenezan aparteko zamarik hartu beharko nuenik; hileroko kuota ordaintzeaz

gainera, lan batzorde batean parte hartu beharko nuenik, Seaskako egutegiak edota txartelak saldu beharko nituenik—eta dagokidan kopurua saldu ezean dirua nire patrikatik jarri beharko nuenik—; edota Herri Urratsen derrigorrez eta urtero lan egin beharko nuenik, bizpahiru adibide jartzearen. Horren ordez, Seaskako ikastolei aitortu izan dizkiegun baloreak begitantzen zitzaizkidan ezereen gaitetik, egun, Frantziako Hezkunde Nazionalak, bere austeritate plana dela eta, kinka larrian jarri nahi dituen horiexek berak, justuki: ikasle-talde txikiak, haur bakoitzari aparteko segimendua, herrian txertatzea, motibazio handiko irakaslegoa...



Hendaiaiko Gure Ikastolako gurasoak iazko Sagarno Egunean lanean.

HENDAIA.COM



Funtzionamendua eta lan partiketa

Ipar Euskal Herriko ikastolak elkarte pribatuak dira izatez, eta gastronomi, kirol edo kultur elkarteetan gertatzen den bezalatsu, kideen esku dago beraien funtzionamendua eta kudeaketa. Bestela esanda, irakasleen soldatak alde batera uzten baditugu –Seaskak eta Frantziako Hezkunde Nazionalak 1993an izenpetutako hitzarmenari esker, estatuak hartzen ditu bere gain–, gainerako guztiaz zentroko haurren gurasoek arduratu behar izaten dute. Esan nahi baita, laguntzaileak kontratatzeaz, materiala eta altzariak eros-



Gure Ikastolaren 40. urteurrenaren karira, apirilaren 3an eta 4an Hendaian antolatutako festa. Ekainaren 4an Donibane-Ziburuko ikastolak beste horrenbeste beteko ditu.

Pyrénées Atlantique
HOTELA
64310 SENPERE

Tel. 0559540222 - Fax 0559544254 - hotel-pyrenees@wanadoo.fr
www.hotel-pa.com

Manex
KANPALEKUA

Senpereko aintziratik bi kilometretan eta mendiez inguratutik, MANEX kanpalekua: bakantzetako eta deskantsuko parabisu bat. 30 lekuek presentatzen dute bista bat ezin ederragoa. **Ongi etorri !**

64310 SENPERE
Tel. 05 59 54 13 42
camping.manex@wanadoo.fr
www.campingmanex.com

Biltzeko, lehenik erein

Gurasoen zama ekonomikoa arintzeko asmatu ziren, aspaldi, ikastoletako festa batzordeak. Haien diru ekarpena txikitu beharra zegoen eta festetan parte hartuz, txosnetan lan eginez nahiz ogitarte-koak eskainiz, lana sos-kopuru handi baten ordezko bilakatu zen pitaka. Mixel Etxeberri Donibaneko guraso eta Seaskako lehendakari ohiak argitzen digunez, "bazen bigarren helburu bat ere, noski: lehengo festa zaharrak berpiztea,

esate baterako Inauteria, eta bide-nabar, ikastolen jarduna eta ahale-gina kalean erakustea, presentzia ziurtatzea".

Donibane-Lohizunen, nagusiki Atun Festa sortu zelarik, arras ongi funtzionatzen zuela erakutsi zuen ikastolako festa batzordeak. "Taldea aski antolatua ginen", diosku Etxeberri, "harrotasunik gabe diot, ekipatuak ginen, kalitatea eskaintzen genuen eta fama ona hartu genuen". Herriko Etxeak ere diru-zama bat ematen zien kulturaren ize-nean.

Festetako ohiko lanez gain, *catering* moduko zerbitzuak antolatzen ere hasi ziren, alegia beste elkar-teentzat otorduak eskaintzen. Seaskak 1993an Frantses Hezkundearekin hitzarmena sinatu zue-nean, eta udalak ematen

ziren subentzio hori ez galtzeko —eskolek ez dute horretarako esku-biderik—, orduko festa batzordeko kideek Erein Ta Bil elkartea sortu zuten.

Apartekoa bada ere, Donibane-Ziburuko ikastolari atxikitako elkar-tea da, beraz, Erein Ta Bil. Adibidea jartzearen, Seaska eta Herri Urrats diren bezalatsu, elkarri begira eta elkarrekin aritzekoak. Erein Ta Bilek hainbat festaren antolatzea hartzen du bere gain, baina aldiko, lagundu beharko duten gurasoen zerrendak galdetzen ditu. Biltzen den diru-zama haurren ateraldiak eta antze-ko gastuak ordaintzeko izaten dira.

Ikastolan gertatzen den bezala, Erein Ta Bil elkartera batzen den jendea Donibane-Ziburuko gurasoa izan ohi da. Haurrak kolegiara pasa-tzen direlarik, guraso horiek galdu egiten dira eta datozen berriak for-matu behar izaten dira.



DONIBANEZIBURUKOIKAS.FREE.FR

Ikastolaren izenean antolatzen diren festen xedea ez da beti dirua biltzea izaten. Zenbaitetan ikastolaren jarduna kalera ateratzeari eta presentzia ziurtatzeari ematen zaio garrantzia, edota euskal kultura eta ohiturak erakusteari.

teaz, argindarra eta ura moduko gastuez, zen-troa garbitzeaz, konponketez, irtenaldietara-ko sosak biltzeaz, behar izanez gero ikastola berria eraikitzeaz...

Babarrunak eltzetik ateratzea ez da, ordea, beti erraz. Familien hileroko kuotak gehi herriko etxetik nahiz bestela hel daitezkeen diru-laguntzak aski ez eta lan ugari egin behar izaten da urteko aurrekontua osatzeko. Hain da horrela, ezen estrukturala ere badela aspal-

didanik: haurrak matrikulatzearekin batera, ikastolak dituen batzorde eta lan-taldeetatik gustukoena hautatu eta bertan jardutea eska-tzen zaie gurasoei. Euskaraz Bizi taldean —gure hizkuntza geletatik kanpo ere sustatzea du helburu— edota Festa Batzordean, kasura. Hori gutxi ez eta gainera, herriko jaietan nahiz dirua biltzeko antolatuko diren ekital-dietan, euren parte-hartzea programatuko da. Zentroak kudeatzen dituen zenbakien arabe-ra edo tokian tokiko administrazioak erakus-ten duen jarreraren arabera, lan gehiago edo gutxiago egingo dute kideek:

"Guk sekulako xantza dugu", nabarmen-tzen du Corinne Aprendisteguy Hendaiaiko Gure Ikastolako diruzainak. "Udalak maite du euskara eta ahalegin handiak egiteko ditu ikas-tolaren alde". Hala da. Haur bakoitzeko dago-kion diru-laguntza emateaz gainera, egoitza uzten dio debalde, eta egunero bere soldatape-ko langileak igortzen ditu garbiketa egitera, gainerako ikastoletan gertatzen dena, zama hau ere gurasoek hartu beharra, ekiditeko. Ipar Euskal Herriko ikastolarik handiena da halere, eta gastuak ere ez ditu nolanahikoak. Besteak beste, hamaika laguntzaile ditu kontratatuta.

Herriko Udalak eta Biriaturkoak emandako kopuruak onak izan arren, batez beste 30.000 euro inguru bildu behar izaten dira urteko aurrekontuak behar bezala biribiltzeko. Hen-

daiako Gure Ikastolak hamar bat festa ditu programatuta. Batzuk bere inizatibaz eta ekimenez antolatzen ditu ikastolak. Adibidez, ganbara-husteak –traste erabilien azoka modukoa – edo Maiatz Lili deiturikoa –maiatzaren lehenean herriko toki esanguratsuenetan postutxoak jartzen dira lore-sortak saltzeko–. Gainerako ekimenek herrian txertatuta dauden festekin dute zerikusia: Sagarno Eguna, Bixintxoko Danborrada, Ihauteria, Txipiroi Festa... Kasuotan txosnak izaten dira diru-iturria.

Gurasoen lanari dagokionez, hamar festa horiek gelatan banatzen dira eta familiek gutxienez egokitutako bietan esku hartu behar izaten dute.

Beste horrenbeste gertatzen da Donibane-Ziburuko ikastolan, Mikel Ibarguren bertako gurasoak azaldu digunaren arabera. Haur kopuruari dagokionez Hendaia baina txikiagoa izanagatik ere, diru-zama bertsua osatu behar izaten da 10-12 festen bueltan egindako lanetik eta mantalak eta antzeko materiala saltzetik: 30.000 euro inguru. Bada bestelako eragozpenik ere, “ikasturtea amaitzearekin batera garbiketa orokorra egin behar izaten da ikastolan, eta irakasleen materiala eta gainerakoak bertatik atera, egoitza uda osorako Sagardian elkarteari uzten baitio Herriko Etxeak”. Kezka edozein delarik ere, gurasoa lanari lotzea izaten da bidea. “Ondean dugun antenak emititzen dituen uhinen eragina neurtu nahi izan genuenean, adibidez, –azaltzen digu Ibarguren– lepokoak eta antzeko pitxiak egiten aritu ginen, bereziki amak, salmentatik ateratako diruz, aditu-talde baten azterketa ordaintzeko”.

Baina lanak beti du ordaina, eta kasu honetan ederra: inplikatzaren diren gurasoak hurbilago sentitzen dira, proiektuaren parte, ikastolaren eraikitzaile, euskararen normalkuntzarako borrokan aktibo. Eta Ibargurenek dioen bezala, “etsenplu hobea ematen zaie hurrei”. ■



Atxaspi Hotela



Bittiria 24
Lesaka (Nafarroa)
T 948 637 536

hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com

TTAKUN (H)ERRENKA

Esperientzia

N

ahiagoko nuke hain-
beste bidaiatzea eska-
tzen ez duen belau-
naldiren bat, baina

DANI BLANCO



Uxue Apaolaza



Padron



Sarasola

eskerrik asko Beñat, onartzen dut zure Seneca, “Ze-nekel!”n izen emateko gonbidapena (Volgako batelariak zerbait ezin badugu, belaunaldi bat osatzea da), gutxienez Erasmusarekin baino gutxiago mugitu behar dut, Madrilen bizi naizenez batere ez. Niri, eta *Orgasmus* liburua irakurri gabe, bigarren partea gustatzen zait, adjektibo luzeak jartzearena; Koldo Izagirrek lideratzen duen —ez aginte zuzenez, sinbolikoki baizik— belaunaldi maskulino “biktimista-folklorista-enpresarial” monakala, adibidez; a ez, feminismo zen (feminitate guztiak dira feminista?), eta Irati Jimenez, nahastu egiten zaizkit niri jartzen ez dizkidaten etiketak, ni gainera ez dakit Orgasmusetik kanpo gera naitekeen ere (Erasmusetik bezala), galdetu izan didaten eran, orain bat-batean, uholdeka, agertzen ari garen emakume mordoaren parte garen guztiok (etorkinen kopuruarekin ere izaten dira halako portzentaje-irudipenak), berdin eta gai berdinei buruz idazten dugunez. Nik egia esan, eta aukera eman didazunez, gustura larrutuko nuke Uxue Alberdi moztro teoriko batekin, izan ere, duela gutxi izan nuen bazkari batean lagun batek seinalatu zidan eran, inbidia diot nire izen berarekin arrakasta handiagoa lortu duelako (eta guapagoa delako, eta nobio guapoagoa duelako eta Google-en desagerrarazten nauelako...), gorrotoa diot irratiko nire kolaborazio batean bere izenez aurkeztu nindutenetik; baina ondo pentsatu eta ohar-tu naiz ez dagoela Orgasmus koadrilan. Denok berdin idazten dugunez, nahastu egiten naiz ni ere; agian horregatik zuk ezin duzu egon Beñat, gizon bakoitza bat eta bakarra zaretenez oraindik.

Belaunaldi izenetara itzuliz gaztetasunarekin oso loturik dauden izenak dira denak hala

ere, oso ikusia; ni zahartza-roaren zain nengoen berez ezer aldarrikatzen hasteko, Estrellita Castroz moztro-tu eta medioak konkistatu, emakume zahar, makillatu eta mozkortzat agertu, “Benidorm” belaunaldia, osasun sexuala pitorik inporta ez zaion bat. Baina ez, zahartzaroa aldarrika-

tzearena, emakume gaztearena bezala, Arantxa Urretabizkaiak kendu digu; belaunaldi batzuek aldarrikapen asko berenganatu dute.

Nik zerbait arinagoaz aritu nahi nuen berez, hauteskunde kanpainaz adibidez, gure gurasoen belaunaldia, edo haien bidean, politikariak paternalki guretzat antzetzten, dena hain historiko, simulazio, ideia baino etiketa gehiago, irudien atzetik, koadrila bila bezala, eta ETA, denen kanpaina, gure “kezka” ulertuz, ezer aukeratzen ez dutenen festan, dagoeneko liturgia baino ez den sigla bat kanpainen zutabe, aukeratuko bagenu bezala egiten dute guretzat, klasean inperio garaietako senatuez esaten ziguten eran, nork agintzen duen jakinik ere, eta bozkatzan ditugunak gestore esanekoagoak edo kexatiagoak izango direla, zentratzen gara denok antzerki gero eta sinesgaitzagoan, non gaur egungo krisian eztabaidagai eta kontraesan handiena ETA den, eta Troitiño kokatzea (gure belaunaldi fundatu berriaren izena alferrikeri erabili dut ia, gero eta gehiago gustatzen zait “Ze-nekel!”rena).

Errealitatea kontatu behar duenak gezurra bizi badu, fikziozile zenbaitek ezin dugun zerbait, eta belaunaldietara itzuliz, Arantxa Urretabizkaiari aurrea hartzeko beste modu bat erabil dezakegu (uste dut lehen aipatu dudana Angel Errorekin elkarriketaren batean sortu zela ideia); idazteari utzi behar genioke, eta Guggenheimeko instalazio batean jarri idazten ari garela performatuz, idazten ez duen idazle belaunaldia behar genuke, edo gure holograma bat jar daiteke besterik gabe, etiketaz: “Idazle esperientzia”. ■

Idazteari utzi behar genioke, eta
Guggenheimeko instalazio batean jarri
idazten ari garela performatuz, idazten
ez duen idazle belaunaldia behar genuke,
edo gure holograma bat jar daiteke
besterik gabe, etiketaz: idazle esperientzia

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta

eleak asmatu zituzteneko garaian
jada ohartuak ziren jantzi jakin
batzuen parekideak galkorrak
izan ohi zirela...

**BERRIZ
ere
GALTZE
ERDIA!**



Joseba Iturriz

MEDEAK TALDEKO KIDEA

Putak: XXI. mendeko heroiak

Azken aldi honetan asko entzun dugu puten inguruan. Frantziaren debekuak, erregulazionistak, abolizionistak. Hitz potoloz betetzen ditugu gure eztabaida publikoak, eta bide batez, joko magiko baten bitartez gure errealtatea desitxuratzeko dugu. Berrirori ere, batzuek beste batzuen ordez hitz egiten dute. Bitartean: gauzak berdin. Zergatik ez ditu gure jendarteak putak ikusi nahi?

Galdera honi erantzuteko hitz-joko alternatibo bat proposatu nahiko nuke. Horretarako lotu beharko dira lotzen ez diren egoera sozial ezberdin batzuk. Lan horretarako moral bikoitzez osaturiko betaurrekoak begietatik kendu, eta beste batzuen artean, sexu langileen eta ezkontzaren arteko loturak ulertu beharko dira.

Joko honetan putak protagonistak izango dira, gutxienez gure diskurtsoaren gunean jarriko ditugu. Gunean jartze horrek, periferian eta marginalitate ideologikoetan kokatzen ditugunean, jendartearen betetzen duten funtzioa ikus-tera eramango gaitu. Ezkontza eta lan sexuala lotzea oso erraza da. Orain dela oso gutxi arte, lan sexuala ezkontza-kontratuaren zehaztu egiten zen. Egun maitasun erromantikoak emakume asko engainatu egiten ditu. Hain da indartsua engainua, ezen egunero emakumeak beren bizia ematera iristen diren,



DANI BLANCO

baina inork egiten du ezkontzaren abolizioaren alde?

Aldiz, sexu langileek, gehienek, borondatez akordatzeko dituzte zerbitzuen zenbatekoak. Gainera, libre gelditzen dira ezkontzari lotzen zaizkion nahitaezko zaintza lanez. Nire iritziz, jende askok sexu lana baino gauza okerragoak saltzen ditu.

Horri batu egin beharko zaio, puten eta beste emakumeen arteko segregazioa. Zergatik bereizten dira erabateko inkomunikazioaren bitartez, sexu langileak, ezkontza-kontratuaren emakumeetatik? Kontratu bera duten gizonezkoek, aldiz, putengana iristeko aukera guztiak dituzte.

Zeintzuk dira sexu langileek gordetzen dituzten sekretuak? Gure plazagizonen sekretuak, askok trabestiatik dituzte gustuko, oso zenbaki altu batek ipurditik hartu nahi du, beste batzuek bere bizitza sexuala diru truke garatzen dute... nik ez nuke

esango horrek kaltegarria izan behar duenik.

Kaltegarria iruditzen zaidana estigmatizazioa da, gure jendarteak sexu langileak gogor zigortzen ditu. Biktimizatu egiten ditu eta ahotsa lapurtzen die. Hona hemen sexu langileen mundutik datozen superheroi batzuk, bizirik irauten duten iraultzaile batzuk: Virginie Despentes, Bea Espejo, Cristina Garaizabal, Itziar Ziga, Amaia Lasheras, Hetairak, L.I.C.I.T.... bilatu itzazue Interneten. ■

« Zergatik ez ditu gure jendarteak putak ikusi nahi? (...)

Jende askok sexu lana baino gauza okerragoak saltzen ditu »

TXANDAN

Juan Ramón Makuso



Horrela esan zidan –galdera intonazioarekin– aldameneko eserlekuan topatu izaten dudana edadeko emakumeak; egunero, lantegirako joan-etorrian, autobusean berba lagun dudanak.

Bera, paseatzera joaten da. Eta ibiltzeak ematen dion baretasunetik, patxadaren sosegutik, bere hitz-jarioa oparoa izaten da niretzat. Bizitza bizitza eman dion jakinduria ez da makala. Gerra ostean, Frantzia, liburutegi batean lan egin zuen. Berak dio liburutegian, hautsa aurkitzeaz gain, bizitza zeharkatzeko denetariko kaleak aurkitu ditue-

Harrituta ala?

la. Eta plaza ederrak atsedena hartzeko. Baita bihurgune txar asko ere.

Egun hauetako Stéphane Hesselen *Haserretu zaiten* liburuaren zurrumbiloaz itaunduen, banekielako, berak jada izango zuela horren zarata. Eta natural-natural esan zidan “harrituta ala?”. Askok gustatu zitzaizkidan bere aurpegiaren keinua. Keinua oso adierazkorra zen, esanez bezala: “Zer itxaron dezakezu gure gizarte honetatik?”. Postmodernitatearen gorazarreak hutsaren hurrengo utzi digu. Eta orain, egunero, hori daukagu gosaltzeko. Baina gure elikadura oso eskasa da. ■

Rosa Maria Martin Salazaris

EHUKO IRAKASLEA ETA IKUS-ENTZUNEZKOETAN ADITUA

Aire!



ire, aire!” esaten zigun sukaldean bere parean endredatzen ibiltzen ginen ilobak uxatzeko, edo bere amantaleko korapiloa atzetik olgetan askatzen genionean. “Aire!”

beranduago gure zereginetan gehiegi luzatzen baginen. Emakume handia iruditzen zitzaidan orduan, indartsua. Berak piztu zidan literaturarako grina. Udan, Gaztelako siesta amaitu eta gero, bere altzoan, entzun nituelako istoriorik miresgarrienak. Hortzik gabeko aho hartan, metrika zahar- rean, gerrak, amodioak, hilketak, mendekuak... Bere ezpainenatik ilunabartu arte penak eta pozak jarioan. Erromantze haietan, tarte- ka-marteka, pertsonaia bat edo beste kantuan aritzen zen, eta gero amama Gregoriak jarraitzen zuen berriro. Guztien artean, doña Urracarenak aho-zabalik uzten ninduen: batzuetan El Cid-ekin agertzen zen, tamalez, maitemin- duta; beste batzuetan, Zamorako setioari eutsiz, kementsu eta ausart. Betiere, orduko eredu eta arauen aurkako emakumetasunaren aldarrikatzaile. Historiak emango zion tratu txarretik babesteko, harresiztatutako emakumea.

“*Aire, mi marido en la cárcel y yo con un fraile!*”. Ulertu gabe entzuten nion esaera, berrogei urtez doluzko jantziak zeramatzala jakinda, ez, bere gizona ezin kar-



INIGO AZKONA

tzelan egon... Berekiko egiten zuen otoitz etxean, edo elizan desorduetan, baina meza- tara zihoazenak eliz atarira agertzen hasi bezain pronto, ospa egiten zuen, aire! Eta sotanaz jantzitako batekin topo egiten bazuen, agurtu bai, agurtzen zuen, baina segidan txistua botatzen zuen, nazkatuta, ahoa garbitzearren. Gerra garaiko kontuak.

Nerabezaroan sartu nintzenean ulertu nuen andre apala zela, gorputzez eta arimaz. Laurogeitabost urte zituela, halako egun batean, aparteko zerbait erakutsi asmoz deitu zidan. Liburu bat hartu, eta atzamar zimurraz lagunduta, jada- nik erabat dardarka, hasi zen zeharo trakets irakurtzen, hitz bat, eta gero beste bat, eta horrela. Zur eta lur geratu nintzela ikusi zuenean, bere buruaz are gehiago harrotu zen, sinadura egiteaz gain, paperak irakurtzen zekien adine- ko andre bakarra zelakoan... Era- bat harrituta ni, urteetan zehar entzundako erromantze luze-luze haiek nola ikasi ote zituen lehen-

bizikoz nirekiko galdezka... Apala bezain erraldoia.

Zuri-beltzean dut gogoan amama. Goitik behera beltzez jantzitako buruzuria. Doña Urraca bezain urrun dagoeneko, eta bera bezain eredugarri gaurko egunerokoan. Zamorako itsasoa bere begietan. Harresiztatutako emakumea. Aire! ■

Nerabezaroan sartu nintzenean

ulertu nuen andre apala zela,

gorputzez eta arimaz.

Laurogeitabost urte zituela, halako

egun batean, aparteko zerbait

erakutsi asmoz deitu zidan

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Bazko oporrak. Inguruko jende dezente baliatu ditu airatzeko, eta kanpotarrez bete zaizkigu gure bazterrak ere. Pozik dauzkagu ostalariak betekada zapi. Gure kasuan, mugalde honetan ohiko bilakatu duten Lopez Ufar- te futbol torneo internacionala izan dugu bilgune. Eta guk ere “*nacionales*” deitzen ditugunak izan ditu- gu aste santu honetan gurutze, bidegurutze zenbai- tetan kontrolak ezarriak zituzten kotxe ilara alima- leak probokatuz, bidea gure zirkulazio arterialaren motelak hartzen zuela libragaitz. Adin batekoei paso, gazteei alto. Pazientzia urre. Propio galdetuta

Joan dira

jakin dut espainiarrek eramán dutela kopa, Real Madriderik japoniar taldeari finala iraba- ziz. Guk, Baigorriara egin genuen urtero beza- la, aurtengoan krisia medio, kilometroak eta beha- rrezko erregeiak aurrezteko edo, biak bat antolatu digutela. Nafarroa eta Aberria independentzia bidean alderdikeriak bazter. Herriaren tenorea, jen- dearen garaia, autonomoen kuraia. Aro berria. Bil eta sor, sor eta bil. Kantu baterako errepika egokia. Pena, Gernikara ere joan gintezkeela gustura, baina egun bakarrerako sobera izaki, kilometroak kotxe ttikienean ere hogeita bost bat zentimo egiten baitu, eta gerriak pareta, patrika zulo. ■

BERTSO BERRIAK

Jexux Mari Irazu

Adopzio irregularren auziari jarriak



DANI BLANCO

I

Sabel bateko ur likatsutan
esku igurtziz betea,
ni sorbidean jartzekoa zen
norbaiten borondatea.
Jaiotza berez mirari bat da
bizitzarako atea
eta nork nahiko zuen nirea
misterioa izatea?

II

Lehen ez dakit, orain Mikel naiz
kendua edo emana
lau beso eta bi bihotz beti
gertu izan ditudana.
Nire umetako sehaskari so,
zalantzak bildu nigana
ta sabelean sartu zait zerbait
uxatu ezin dudana.

III

Ama partoan hil omen zela
dio mediku oharrak.
Izen-abizen ezezagunak
mutu sendagile zaharrak.
Aitaren berri aipatu ere ez,
han ta hemengo marmarrak...
Arnasa hartzeko izango al ziren
nire lehenengo negarrak!

IV

Hirurogeita hamabosteko
maiatzak hiruko bueltan,
Donostiako komentu baten
goizeko ordubietan.
Horra hor nire koordenadak
itsaso zabal honetan
baina ez pentsa bizi naizenik
botila galdu batetan.

V

Galdera batek lehortu nahi du
sortze zalantzaz bustia
baina erantzuna onartzeko gai
naizen da kezka izpia.
Baiezkoaren itxaropenez
igurtziz sabel azpia,
egia eta bion artean
geldituko da guztia.

VI

Bizitza normal doa aurrera
ez nuke nahi korapila.
Zilbor-hesteak arrastoa du
orbaindua ta isila
baina eskatzen dit ez etsitzeko,
bizirik egon zein hila,
ebaki eta desagertu zen
beste zatiaren bila.

DOINUA: Sarasua anaien *Fauna Txiki bat bertsotan* CDko "Txetxenia".



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaiera

Josean Bengoetxea

«Probokazioa da jendea nahi duzun bidetik eramatea»

Bolada ona hartu du Josean Bengoetxea aktoreak (Donostia, 1964). Telebista eta antzerkia baztertu gabe, protagonista rolak harilkatu ditu zineman, Ander filmeko baserritar homosexualaren antzezpene ederraz geroztik: *Camera obscura*-n, errodatu berri duen Telmo Esnalen *Urteberri on, amona!*-n eta laster, *Los tontos y los estúpidos* komedian.

MIKEL GARCIA

Argazkiak: Dani Blanco

Protagonistak egokitzen ari zaizkizu azkenaldian, baina aurretik bigarren mailako pertsonaia asko egin dituzu. Oso ezberdina al da?

Askoz ere lan intentsuagoa da protagonista-rena, nekezagoa, baina prestatzeko unean ez dago diferentziarik, erronka bera da niretzat: bizitza eman behar diezun pertsonaiaak dira eta maitasun eta pasio berarekin hartzen dituzu.

Antzerkian, telesail ugaritan eta zineman ari-zen zara. Erraza da hiru arloak uztartzea?

Aktoreoi gehien erakartzen gaituena bat-bateko lana da eta bat-bateko lana antzerkiak ematen dizu, ikuslea hor daukazulako eta prozesu guztia momentukoa delako: pertsonaia hartu, bota eta ikuslearen erantzuna ikusi; guretzat hori da borobilen. Ausartuko nintzateke esatera artearen munduan beste ezerk ez daukala magia hori. Ikus-entzunezkoetan, zinematik telebistara alde handia dago. Zinemak asko erakarri nau betitik eta nik esango nuke gehienok zinema zaleak garela, zeinek ez du inoiz pelikularen batekin amets egin, barruan egotearekin, pertsonaia-ren bat izatearekin? Baina beldurra ere ematen zidan zinemak, antzerkiak eta eszenatokiak ematen dizun askatasun eta espazio hori guztia mugatu egiten dizulako, planoekin-eta. Gero konturatu naiz teknika eta arlo bakoitzera egokitzea dela oinarria, baina lana bera dela, eta gozatzen hasi naiz zinemarekin, maiteminduta nauka mundu honek, txoraturta:

Maleta alboan, Madril eta Donostia artean bizi da Bengoetxea: "Beti nabil hemendik hara eta handik hona, ez naiz leku berean denbora asko egotekoa".



kamera non dagoen, enkoadrea, soinua, record-a... Beldurra ematen zidaten izen horiek guztiek orain plazera sortzen didate. Eta telebistan, denek (teknikariek, gidoilariek, zuzendariak, artistok...) dena ematen dugu, baina berez makineria guztia prestatuta dago txurroak egiteko. Bakoitzaren potentzialtasun guztia ateratzeko telebistak ematen dizun ahalmena mugatua da.

Antzerkian *Polvo*-rekin ari zarete. Bitxia da sinopsia: gizon bihurtzen doazen bi ahizpa zarete.

Bi ahizpak iraultzaile eta ezkertiar izan dira gaztetan, munduari bira eman nahi zioten, eta gaur egun etxezulutik atera gabe bizi dira, etxeko hautsak jaten dituen bitartean eta armamentuarekin, kanpoan dagoenarekiko beldur, denak direlako etsai. Gure herrian nola bizi garen, horri buruzko metafora da. Kanpoko ekosistemak, krisiak eta denak eragina du beraien gorputzetan eta pixkanaka gizon bihurtzen ari dira. Gainbehera hori islatzen da eta horregatik, komedia izan arren, badu drama ukitua, tristura izugarrian murgilduta bizi dira, eta gogoetara bultzatzen du ikuslea. Estetika aldetik nahiko sinplea da, baina transgresio puntu bat badauka. Pentsa, nire gorputzarekin emakumearena egiten... Trabestismoa hor dago.

Gustuko dituzun gaiak eta rolak jorratzeko askatasuna ematen dizu antzerkiak?

Azken urteotan ez diot utzi antzerkia egiteari, baina zinema gehiago egin dut, eta nire kasuan, gizaki bezala zinemak gehiago aberastu nau, oso pertsonaia potenteak egin ditudalako: Anderrekin adibidez beste kondizio batzuk ezagutzeko aukera izan dut, hor daudenak, baina agian aukerarik izan ez dudalako edo ausartzen ez nintzelako, lehenago ezagutu ez ditudanak.

Kontuak kontu, niretzat orokorrean interpretazioa da betiko galderei erantzunak bila-

Aktore ona izatea zer da?

"Ez dakit ba, geroz eta aktore txarragozat ikusten dut nire burua. Niri gustatzen zait bere buruarekin bakean dagoen aktorea eta bere burua kanpotik ikusteko gai dena. Eta ikusle moduan geroz eta gehiago, umorea duen aktorea, nahiz eta drama edo tragedia egin, baina transzendentalis-motik urruntzen jakin eta hala ere emozioak sortzeko gai dena".

tzeko biderik aberatsena (gu nor garen, nondik gatozen, nora goazen...). Askotan, erantzunak baino galdera gehiago aurkitzen dituzu, eta ez da txarra. Bizitzeko behar dudak dirua-eta emateaz gain, niretzat interpretazioa da beste ezerekin ez bezala gizakia bera ezagutzeko aukera, gizakion bertute eta miseriak ezagutzeko, beste gizakiekin harremanetan jartzeko aukera, pertsonaia oso ezberdinak jorratzen ditudalako, eta horrek guztiak, dudarik gabe, aberastu egiten zaitu pertsona gisa.

Zuri irakurria: artea arma boteretsua da probokaziorako eta kontzientziak mugitzeko.

Bai, maite dut probokazioa, iraultza bat sortzen duen heinean. Ideologikoki, iraultzatxoak sortzearen aldekoa naiz, lehenbizi neure baitan. Ni naiz geldirik egon nahi ez duen lehenengoa, beti nabil hemendik hara eta handik hona, ez naiz leku berean denbora askoan egotekoa, eta hori bilatzen dut nire lanean ere, mugimendua: ikuslearengan probokazio bat sortzea, ez zaidalako gustatzen gauzak nola dauden. Inkonformista behar da izan eta arteak aukera ematen du horretarako. Beste ezerk ez bezala gainera, kulturalki ematen direlako iraultza handienak gizarte guztietan. Krisialditan beti kulturari egiten zaizkio murrizketa handienak eta horrek pobretzen gaituela uste dut.

Probokatzea gustuko duzula-eta, ETako kidea izan zara hainbat filmetan: *Yoyes*, *Celda 211*, *Todos los días son tuyos*.

TV-movietan ere izan naiz gehiagotan, eta beste askotan ezetz esan diot rol hori antzezteari. Errespetu handia diot herri honen historiari eta historia hurbilena gatazka politiko-militar hori da; horregatik uste dut kontatu, kontatu behar dela gatazka, baina sakonki, eta proiektuei ez badiet errespetu hori ikusten, ez ditut onartzen. Batik bat guk kontatu behar-ko genukeela uste dut gainera, Espainian

Ondarre

B A S E R R I A

20214 Segura (Gipuzkoa) • Tel: 943 80 16 54
ondarre@hispavista.com • www.nekatur.net/ondarre



Ander filmarekin (ezkerrean) aktore onenaren sari ugari jaso ditu Bengoetxeak. Telmo Esnalen Urte berri on, amona! (eskuinean) errodatu berri du.

ikuspuntu kutsatuagoa dutelako. Gidoia irakurri eta zirrara eragiten badizu, eta ikusten baduzu galderak daudela gehiago eta ez erantzunik, seinale ona da. Ikusten badut erantzunik ematen dizkizutela, zerbait itxia... Nik ez daukat ezer argi mundu honetan, erantzunik ematen hasteko moduan. Telebistak joera handiagoa dauka horretarako.

Polizia ere izan zara telesail ugari-tan. Hori ere probokazioa da?

Bai, Ertzaintzako buru ere izan naiz, eta horrek ni ere probokatzen nau, asko maite ez dudana lanbidea delako. Baina ez dira bereizi behar onak eta txarrak; uniforme horien azpian ere gizakiak daude, askotan ikustea kostatzen bazaigu ere. Berdin gaizkile handienaren atzean ere; Hitler antzeztea izugarri gustatuko litzaidake, adibidez. *Der untergang* (Hondoratzea) filmean Bruno Ganz aktoreak sekulako gizatasuna eman zion Hilterri; hori da gure lana, gizakiaren eremu guztiak ukitzea, ahalik eta pertsonaia ezberdinenak antzeztea.

"Agian badut erraztasuna bakardadetik atera nahi duten pertsonaiak antzezteko. Ondo ezagutu dut leku hori eta ulertzen ditut pertsonaia horiek"

Gizaki bezala ekarpenik egiten ez dizuten rolei esan behar zaie ezetz. Dena den, bada antzeztea beldurra ematen didan pertsonaia bat, noizbait eskainiko balidate: pederastarena. Semetxoa daukat gainera... Baina bestela, gaiztoarena egiten gozatu egiten dut, denok dugulako kartzela txiki bat zenbait muga gainditzeko, eta interpretazioaren bidez aukera hori daukazu.

Zein neurritan baldintzatu zaitu fisikoak? Rol oso ezberdinak antzeztu dituzu eta ez dirudi *enkasillatuta* geratu zarenik.

Horrelakoak entzutea pozgarria da, batek beti daukalako gauza antzekoak egiten dituen ideia, eta toki batzuetan esaten dizutelako pertsonaia konkretu batzuk egiteko fisikoa duzula, azentua... eta ideia hori buruan izateak asko mugatzen gaitu aktore gisa, baina galaiarena egiteko fisikoa ez badut ere, esparru zabala daukat antzezteko eta egia da pertsonaia ezberdinak egin ditudala.

XXIII. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria 2011

Lanak aurkezteko azken eguna:
2011ko maiatzak 14

Andoaingo Udaleko
Euskara Zerbitzua
943-300831
euskazerbitzua@andoain.org
www.andoain.org/eu/html/46/2402.shtml



Andoaingo Udala
Euskararen Normalizaziorako Lansaila



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizuntza Politikarako Saiburordetza

Zineman *Urteberri on, amona!* errodatu berri duzue, alzhemerrari buruzko komedia beltza. Ez da erraza izango rol komikoa baina aldi berean sakona eta ñabardura dramatikoak dituen antzezte...

Ez, ez da erraza, baina niri asko gustatzen zaizkit horrelako istorioak, umorea dramarekin edo tragediarekin nahasten denean. Askotan muga non dagoen ez dakizu eta hori ere probokazioa da. Probokazioa da jendea nahi duzun bidetik eramatea: etor zaiten nirekin, orain barrez ari zara, baina segi nirekin eta bizitzaren beste aldea erakutsiko dizut... Teknikoki bere zailtasunak ditu eta horrek ere asko erakartzen nau. Zuzendariak bideratu egiten zaitu, zuzen joateko oharrak ematen dizkizu, baina autoa zerorrek daramazu. *Urteberri on*-en hustu egin gara, lan talde guztia, eta egun batzuk behar ditugu egin duguna baloratzeko, baina oso-oso intentsua izan da eta ez daukat zalantzarik zeresana emango duen pelikula izango dela.

Ander filmarekin aktore onenaren sari ugari jaso dituzu, bere sexualitatea deskubritzen duen baserriarraren rola antzeztuz. Nola izan da *Ander* antzezte?

Gidoia irakurtzerakoan jada irudi oso potenteak zeudela ikusi nuen eta horrek iraultza txiki bat sortu zidan barruan; nire burua biluztu beharrek, ez fisikoki bakarrik, beldur pittin bat ematen zidan. Baina gidoia nolako maitasunarekin idatzita dagoen ikusteak zirrara piztu zidan; aurreiritziak baztertu, istorioan murgildu eta sufritzen ari den pertsonaia horrekin maitemindu nintzen.

Filmeko baserria herriaren metafora gisa ikusten dut nik: leihoak itxita dituen, kanpokoaren beldur garelako, eta azkenerako

"Gidoia irakurri eta ikusten baduzu galderak daudela gehiago eta ez erantzunik, seinale ona da. Nik ez daukat ezer argi mundu honetan, erantzunik ematen hasteko"

ireki egiten dituen. Egia da hainbeste maite duen herri honek ito ere egiten nauela batzuetan; aukera zein da: alde egitea ala leihatila horiek irekitzen hastea? Herria bera aberasteko garrantzitsua da ateak munduari irekitzea, pelikulako baserriak egiten duen moduan: beste sexu kondizioei, etorkinei, familia eredu berriei, emakumearen askatasunari...

Horren haritik esan izan duzu *Ander*-eko zuzendaria (Roberto Castón galiziarra) euskalduna ez izateak lagundu zuela begirada irekiagoa ematen, ez hain endogamikoa.

Gure kontuez guk hitz egin behar dugu, baina kanpoko laguntza izatea ere garrantzitsua da, tarteka aldentzeko, perspektiba hartzeko; osasuntsua da. Castón ez da euskalduna baina baserri mundua ezaguna du eta sentsibiltate handiko pertsona da, ikusten dakiena, aurreiritzirik gabe. Guk askotan ez dugu ikusten, iritziak aurrez finkatuta ditugulako.

Distribuzio arazoak izan ditu hasieratik pelikula. Castón kexatu da bi faktore nagusi daudela atzean: gaia (homosexualitatea) eta hizkuntza (euskara). Hala uste duzu zuk ere, ala merkatuaren politika izan da erruduna?

Denak dauka eragina: merkatuak, hizkuntzak, gaiak, pelikularen estiloak berak, baserrian kokaturiko istorioa izateak, zorte txarrak... Gaur egun ez digu gehiegi arduratzen horrek, hemendik kanpo ikusi ahal izan delako, sariak jaso ditu, ikusteko aukera izan duen asko txunditurik geratu da... Helburua zen, printzipioz, kontzientziak pixka bat astintzea eta lortu du kasu ugarian. Mutiko baten e-posta jaso genuen, adibidez, oso emozionatuta, kontatuz bere bizitza aldatu zuela filmak. Horregatik bakarrik, lortu du bere helburua *Ander*-ek.





Roberto Castónekin beste lan bat egin duzu ondoren: *Errudun sentitzen naiz* film laburra. Eta *Los tontos y los estúpidos* filmatuko duzu berarekin Euskal Herrian hemendik gutxira. Ondo moldatzen zarete elkarrekin.

Bai, berak esaten du bere musa naizela, eta niri txoratu-ta naukate bere gidoiek, istorioak kontatzeko duen sentibiltateak eta gaitasunak. Zientoka zuzendari izan dut eta nik zuzendariaren lana errespetatzen dudun moduan atsegin dut hark nirea errespetatzea, aktorea delako pertsonaia hoberen ezagutzen duena, eta zuzendariak ere nik dudun umiltasuna izatea gusztatzen zait. Elkarlana eta elkar ezagutza izan daiteke gakoa, eta zentzu horretan esperientzia onak izan ditut azken urteotan.

Jose Mari Goenagaren *Sintonia* film laburrarekin ere aktore onenaren hainbat sari jaso zenuen. Bi filmetan bakardadea eta bakardadeari diogun beldurra oso presente daude. Zaila al da bakardadea antzeztea?

Bakardadea eta gainean darabagun erru sentimendua presente daude beti Castónen filmografian. Eta diozunaren harira, agian badut erraztasuna bakardadetik atera nahi duten pertsonaiak antzezteko, duela gutxira arte bakardadetik irteten saiatu naizelako beti. Ondo ezagutu dut bakar-



"Uste dut kontatu, kontatu behar dela euskal gatazka, baina sakonki. Guk kontatu beharko genukeela uste dut gainera, Espainian ikuspuntu kutsatuagoa dutelako".

dadearen leku hori eta horregatik agian ulertzen ditut halako pertsonaiak. Beti bizi izan naiz bakarrik, eta haurtzaroko eta gaztaroko momenturik magiko eta intimoenak bakarrik bizi izan ditut. Gaur egun, asko maite dut nire bakardadea, eta uste dut bakardadetik irten nahi hori ahulezia dela, bertutea dela bakarrik bizi-tzen jakitea, baina beldurra ematen digu, gure mamu eta munstro guztiakin bizi behar dugulako. Unerik latzenak gauean bizi ditugu, ohean bueltaka, bakarrik baldin bagaude...

Fernando Bengoetxea *Pernando Amezketa*rra bertsolari eta plaza gizon ezagunaren oinordekoa omen zara!

Bai, nik hori familian entzuna neukan, jakin-mina piztu zitzaidan eta seminariara joan nintzen zuhaitz genealogikoa osatzera. Dena egitea lortu nuenean, ikusi nuen baietz, semearen, semearen, semearen... semea naizela, bide zuzenean. Inguruko jendeak esaten dit, hortik datozkidala izan ohi ditudan ateraldiak, baina bertsolaritik ez daukat ezer, zer egingo diogu ba. ■



INDOOR KARTING

- Haurrentzat eta ezinduentzat egokitutako kart-ak
- Pista alokatzeko aukera
- Taldeentzako aktibitateak
- Deskontu bereziak

☎ 685 722 119

Iparraldeko autobidea, 433. irteera
Tolosa (Gipuzkoa)

www.tolosaindoorkarting.com



Liburuak

KRITIKA

Hau mundu arrano hau.
Juan Bautista Bilbao, "Batxi".
Susa, 1997. 189 orrialde. 10,83 euro.

Hemeroteka

Aritz Galarraga



Lotsagabe bat idazle

EZ DADILA irakurlea nahas: liburu honen edizioa 97koa bada ere, bertan irakur daitezkeen testuak arinago idatziak izan ziren, gaur mende bat atzera, 1914, 15, 16aren hasieran ere bai. Horixe azkenekoz, orduantxe hil baitzen Juan Bautista Bilbao, *Batxi*, marinel hartzen zuen barkua mina batek lehertuta. "Nor da Batxi delako hori baina?", galdetuko du batek baino gehiagok. "Nor da inongo paperetan agertzen ez den idazle modu hori?", libururik gabeko idazlea, 1914ko urriaren 25ean euskal idazleen bilera historikoa atzeratzeko beste zena, Bilboko itsasadarrean barrena ezin eginda zebilen eta.

Bada, auskalo nor izango zen, baina zer utzi zuen idatzita kontuan hartzeko modukoa da, ezbairik gabe. Hiru ataletan sailka daitezke haren hitz lauuko idazlanak: bertako kronikak, ipuin saioak, atzerriko kronikak. Atzerriko kronikak ditu lan nagusi, Iñigo Aranbarrik eta Koldo Izagirrek apailatu bildumak agerian uzten duen moduan. Kronikaren aitzindaritzat ere hartzen dute hitzaurrean. Haize freskoa, zalantzarik gabe, garai hartako kontagintzan.

Hasteko eta behin lotsagabe hutsa du idazkera. Herritik kanpo herrian baino areago, Rotterdamen ez baitago batzokirik, ez karlistak pairatu beharrik Durbanen. Adibidez Italiako Savona hirian, gozatua da, nola azaltzen duen makarroiak metroka jan daitezkeela eta ordaindu gabe ihes egin nahi duen euskaldunaren afera; nola aitatzen dituen alkoholaren kontra egiten duten hizlari mozkorrak; nola Ibarrangeluko batek gauez sardinarekin ingelesak uxatzen dituen, aiztoa duela sinetsarazita.

Baina ez pentsa dena jai denik, orain ehun urte jada matrimonio civile bat badela erakutsiko baitigu, txinatarrek Cardiff-en bi kale dituztela, Chiness Laundry ugari, Batxik berak bat jarri asmo duela Plaza Barrian. Argentinako euskaldunen egoeraz ere mintzo da, jatekorik ez, eta abisua pasatzen du: "Euskaldunak ez egin hara joateko biderik". Baina ez pentsa hor geratzen denik, Lehen Mundu Gerrak Hegoaldean duen kronista bakarra bai baita, patuaren gauzak, alemanek jarritako mina batek hiltzen duen arte.

Egia da euskotarrez hitz egiten hasten denean (bi euskaldun sei ingelesen aurka garaile jartzen dituen bezala), Euzkadiz, urrin susmagarria hartzen dutela testuek, ideologia atzerakoia erakusten dutela tarteka ("euskotar onagan ez dagoela opor egitea, ez ugazaben aurka joatea"), baina bestela demasa da bilduma, harribitxia, sorpresa zakua. Eta, besteren gainetik, bilduma lotsarik gabea. ■

Arbelbide, lehengo eta oraingo sorginei buruz

400 urte pasa dira De Lancreren sorgin-ehizatik eta horren karietara izan da gaiari buruzko hitzaldirik eta publikatu dira artikulua eta liburuak ere. "Baina, nor dira sorginak? Zer dira?" galdetzen du Xipri Arbelbidek Elkar argitaletxearekin publikatu duen *Sorginak. Lehen eta orain. Afrikan eta bemen* liburuan. Lan hau idazteko Arbelbidek berdun baliatu ditu XVII. mende-

ko testuak eta berak pertsonalki Boli Kostan izan zen garaian ikusi eta bizita-koak (12 urtez jardun zuen herrialde hartan misiolari). Emaizta oso liburu dokumentatua da, sorginkeriararen gaia gaur egungo tes-tuingurura ekartzen laguntzen duena. ■



Sorginak...
Xipri Arbelbide.
Elkar.
192 orrialde.
16 euro.

Jokin Ansorenaren 'Ordu bietan Frontoian'

Ordu bietan da zita, Frontoian. Baina ez pilotak astindu, apustuak egin eta fortunak galtzen diren frontoi horretan. Ez. Tolosako... barka, Bedaiopeko Frontoian jatetxea da Jokin Ansorenaren nobelari titulua ematen diona. Gastronomiak leku nabarmena baitauka Alberdania argitaletxearen eskutik kaleratu den eleberri honetan. Jatetxeko platerak esku trebez manciatzen ditu Roberto sukaldariak; jaki gozo horien inguruan berriz, Teresa eta Andres, Daniela eta Mario, Raimundo eta Manuela, Magdalena eta Anizeto... Maitasun istorioen bidez harilkatutako nobela oso bat. Ia Venezuelako telesailen tankerako amodioak, baina ez han, hemen baizik, Tolosa... barka, Bedaiopen. ■

Ordu bietan Frontoian.
Jokin Ansorena.
Alberdania.
398 orrialde.
21 euro.



Diskoak

IKER BARANDIARAN



Hiltzera goaz.
Fiachras.
Bonberenea Ekintzak.
Iraupena: 34'06".
10 euro.

Galtzaileen azken nota eta zurrutadak

BERGARA, LAZKAO ETA LEGAZPI artean banatutako musikari hauek luzaroan punk-rockean aritu ondoren haize freskoa ekarri zioten Euskal Herriko musika eszenari, eta bat-batekotasuna eta marinel kutsuko kanta malenkoniatsuak uztartu zituzten estreinako lanean. Euren erritmoari fidel, ez zuten kontzertu askorik egin, baina jarraitzaile dezente batu zituzten. Orain bigarren lanarekin datoz, eta metaforaz josita badator ere, ezinegona eta amorrazioa

dario. Are gehiago, taldea handitu egin dute, eta eskusoinu, hammond, slide eta soka instrumentuekin lagunduta, countrya eta folka maisuki landu dituzte, euren ezaugarri garrantzitsua den galtzailearen malenkoniak bustita. Bada baita tex-mex ukiturik, eta Irlanda zein Argentinako oihartzunik... Agian serioegi jarri badira ere, emaitza oso dotorea eta sinesgarria da.

www.myspace.com/myspacefiachras

Haritz Artola eta Aitor Aldanondo - Fiachras

«Jendeari gehiago ardura dio kokaina gramoaren prezioak, hamar urtez etxea ezin erosi egoteak baino»

Aspalditik gordetako amorrua atera duzue oraingorik?

Haritz Artola: Bai, 35 urtetan pilatutakoa jada kanpora atera behar izan dugu, bestela eztanda egingo genukeelako. Ezartzen dizkiguten neurri ekonomikoek eta jendearen pasotismoak erretzen gaituzte batez ere. Jendeari gehiago ardura dio kokaina gramoaren prezioak, hamar urtetan etxea ezin erosi egoteak baino, eta hori beldugarria da. Hiltzera edo erailtzera goaz!

Zuen burua korrontetik kanpo ikusten duzue?

H.A.: Bai, eta gustuko dugu hori gainera. Orain Bizardunak-en arrakastarekin modan jartzen hasi da irlandar folka deritzona eta ardurartzen hasiak gara. Tarteka Bizardunak taldearekin konparatu izan gaituzte, baina Aitor eta biok



Bizardunak-eko kide ere bagara eta Fiachras zaharragoa da. Guk nahia dugu lasai ibili, presiorik gabe. Modan jartzen bada, hurrengo diskoan beste estiloren bat landuko dugu, jakina, punk-rocka ez dena; agian rap-a.

Lehenengo diskoa bat-batekoa izan zen; eta oraingoa, berriz, oso landua.

Aitor Aldanondo: Bai. Brigada Criminal bukatu eta berehala kantak idazten hasi eta grabatzera

sartu ginen, eta kanta batzuk borobildu gabe daude. Oraingoan, baina, elkar ezagutzen dugu, ideiak garbiago ditugu eta hammonda, soka instrumentuak eta moldaketak sartzeko aukera izan dugu.

Bizardunak askoz ganberroagoa da eta zuen kantek malenkonia kutsu askoz handiagoa dute.

H.A.: Bai, egia da. Jendeak gustuko du nostalgia eta malenkonia hondar hori: orain dela 200 urte nola bizi ginen; edo zer sentitzen den marinel izanda. Gaur egun abentura askorik egin ezin dugunez, behintzat kanten bidez irudika ditzakegu.

A.A.: Nahiz eta jantzia halakoa edo bestelakoa izan, garrantzitsuena barruko doinu itsaskorra da. Eta malenkoniari dagokionez, nik betidanik maite izan dut Stiv Batorsen ukitu erdi negarti erdi gordina. ■

Ezpalak

JON TORNER

Dantzagunea.net ataria jarri dute abian



DANTZAGUNE.NET webgunea jarri du martxan Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostiako Arteleku zentroko Dantzagunea zerbitzuak aurrea eramaten dituen egitasmoen berri

emateko. Dantza ikastaroei buruzko informazioa, albisteak, argazkiak eta bideoak biltzen ditu webgune berriak, besteak beste.

Iban Aiesta uztailean hasiko da *Vera* izeneko euskarazko filma grabatzen. Transhumantziari buruz egin dako ikerketa antropologikoa du oinarri. Erronkariko abeltzain gaztea da Vera. Istripua izan eta erre kara erori ostean, leku ezezagun batean esnatuko da. Aiestaren hitzetan, “naturarekin lotutako filma da, eta poesiarekin; sekuentzia bakoitzean naturaren poesia horri eutsi, eta hari bizitza eman eta indartzea da filmaren erronka”. Eman films, Sonora Estudios eta Zazpi t'erdikoizpen etxeek elkarlanean egingo dute.

Aitzol Aramaio (Ondarroa, 1971) zine zuzendaria ohean hilik aurkitu zuten apirilaren 24an. *Terminal* (2003) film laburrarekin sari ugari jaso zituen, 2008an Unai Elorriagaren *SPrako tranbia* eleberrian oinarritutako *Un poco de chocolate* film luzea errodatu zuen.

• Sophie Harent Baionako Bonnat museoko zuzendariak **Garan:**

«Baionak bere garapena ez du kulturari garrantzia emanez egin, ondareari eman dio lehentasuna.

Lan handia egin izan da hiriko etxeetako aurrealde asko berrituak izan daitezten. Horri esker ukan du Baionak arte eta historiaren labela. Herritarren artean zabaldutako ustea da museok artezaleei zuzenduak direla, eta ikusleei behar bezalako harrera egiteko ahalik ez daukagularik, uste hori areagotu baizik ez da egiten».



WIKIPEDIA (CC BY-SA)

• Juan Kruz Diaz de Garaio Sasha Waltz alemaniarren dantza konpainiako kideak **Berrian:**

«Nire bidea garatzeko lekurik ez nuelako irteten nintzen Euskal Herritik, baina okerrezena zen ‘erreakzio’ bat zegoela horretan saia nendin ere uzten ez zidana. Harrigarria egiten zait Espainia oraindik ere hain irla ikustea. Hainbeste diru gastatzen du hainbat ekimen ekartzen, eta Europan gertatzen denetik, aldiz, hain dago aparte. Publikoa hazi eta hezi egin behar da, baina hezkuntza hori ez badator gobernuetatik edota jaialdi eta antzokietako zuzendarietatik, hezkuntza ez da gauzatuko. *Ars Melancholiae* lana estreinatu nuenean Berlinen, programatzaile espainiar batek esan zidan hunkitu egin zela, baina gero hauek izan ziren haren hitzak: ‘Nik ezin dut hau Espainian aurkeztu, publikoak ez lukeelako onartuko’».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php



Dive Tarpoón

urpekaritza

Kirol portua, A7 lokala
48992 GETXO (Bizkaia)
Tel / Faxa: 94 4912577
divetarpoon@euskalnet.net
www.divetarpoon.com

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



943 453 588 · www.sigacus.com

Abarak

UNAI BREA

Breizheko aire zahar-modernoak, euskal ukitu batekin

Troioù Kaer/Des Aventures. Dremmwel.
Keltia Musique. 43 minutu. 2011.

BREITAINIAKO musika talderik ospetsuenetakoa da Dremmwel. Bost urtean behin kaleratzen dute disko bat, eta aurreten tokatzen zitzairen, mende laurdena bete berri dute eta. Emaizta *Troioù Kaer/Des Aventures* da, labetik atera berri dagoen lana. Bertan aurkituko duenaren lehen azterna diskoetxearen ize-nak emango dio entzuleari: Keltia Musique. Doinu tradizional bretoiak dira Dremmwelen musikaren oinarria; hortik abiatuta, ausartzen dira beste estilo batzuk jorratzen. Nahasteak europar musika zaharra-



INGRID KUSCHICK-EK UTZIA

ren zaporea du zalantzarik gabe, baina ñabardura askorekin. Nik neuk, bederen, folk progresiboaren eremuan kokatuko nituzke kantetako asko; behin baino gehiagotan ekarri didate gogora Jethro Tull talde britainiar handia.

“Kanta” diot, baina kantatu, gutxi kantatzen da *Troioù Kaer* honetan. Pieza guztiak instrumentalak dira hiru izan ezik, eta horietatik batek euskarazkoak ditu hitzak. Boskote bretoiak ez dio hutsik egin, oraingoan ere, beste lurralde batzuetako artistekin kolaboratzeko ohiturari. Hala, euskal musikariekin egindako elkarlanaren fruitua da diskoaren hamabigarren kanta, azkena, eta denetan esperimentalena. Baina tradizioa oinarri, hemen ere: Josu Goiriren gidaritzapean aritu da diskoko euskal “sektzioa”, eta bizkaitarrak, ohi duenez, txalapartaren inguruan gorpuztu du bere lana. Garazi Abrisketak eta Garazi Irazabalek jarri dute ahotsa, eta Aritz Irazabal aizkolariak, zer eta aizkora. Doinua esperimentalta izanagatik, burura datorkidan adjektiboa “arkaikoa” da. Ederra ere bai. ■

publizitatea

Eremu urriko hizkuntzen babesari buruzko liburua kalean

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak *Eremu urriko hizkuntzen babesaren Europar: hamarkada berri baterantz* liburua aurkeztu zuen aurreko ostegunean Eusko Jaurlaritzan. Liburuaren jatorrizko edizioa ingelesez argitaratu zen. Orain euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu da, euskal herritarrentzat erreferente izan dadin. Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren aurreko garaia, Gutunaren garapena bera eta etorkizunera begirako erronkak aztertzen dira liburuan.

“Askotan ez gara konturatzen euskara ez dagoela bakarrik munduan. Europar bertan hizkuntza asko daudela antzeko egoeran. Badaudela erakunde eta itun batzuk haren alde dihardutenak”. Halaxe azaldu zuen Lurdes Auzmendi Hizkuntza Politikarako sailburuordeak liburua aurkezteko egindako agerraldian.



Ihesi

Testua eta argazkiak:

IÑAKI ITURAIN

Euskal Herria ezagutuz:

Orio (Gipuzkoa)



Balearen bideak

Milla bederatzi eun ta lenengo urtean, maiatzaren amalaugarren egunean, Oriyoko erriko barraren aurrean, balia agertu zan beatzik aldean... Horixe dio sorta luze bateko aurreneko bertsoak. Orion oraindik ere ospatzen segitzen dute duela 110 urteko balearen harrapaketa. Aurtengoa hirugarren edizioa dute. 2001ean mendeurrena ospatu zuten; handik aurrera bost urtero errepikatzen dute balearen festa. Aurten, berriro, maiatzaren 14an.

KANTAURI ITSASOAN harrapatutako azken balea haren bidez, Orio ingurua bisitatuko dugu. Talai Mendi du izena Zarauzko hondartza eta Orioko barra bereizten dituen mendiak; aspaldian hango zelaietan Zarauzko kanpina dago, eta Getariako txakolina egiteko baliatzen diren mahastiak. Horixe du aberastasun gaur egun Talai Mendik. Antzina, batez ere XVII. eta XVIII. mendeetan, Euskal Herriko kostaldera inguratzen ziren baleak behatzen zituzten

talaia hartatik. Beste horrenbeste egiten zen justu Oria errioaren beste aldean dagoen Kukuarri mendiarren magaletik ere. Handik bista zoragarria dago mendebaldera: Orioko barra, Zarauzko Mollarriko uhartea, Getariako San Anton mendia eta itsasoa. Garai hartan balea baten arrantza aberastasun iturri handia zen hori lortzen zuen herriarentzat.

1901ekoa, behintzat, probetxugarria gertatu zitzaizen oriotarrei.

Gorputzez zan milla ta berreun arrua, beste berreun mingain ta tripa barrua; gutxi janaz etzegen batere galdua, tiñako sei pezetan izan zan saldua.

Orio eta Aginagako ontziolak

Hura izan zen Kantauri itsasoan harrapatutako azken balea, baina haren aurretik zenbat izan ote ziren? Badira uste dutenak euskaldunak lehenago iritsi zirela Kolon bera baino ere Amerikako lurretara, balearen arrastoan. Ternuako itsaso neguan izoztuetara joateko, ontzi sendoak eta gogorrak behar zituzten euskal arrantzaleek. Ontzi haietako asko eta asko Oria ibaiaren ertzetan sortutako ontzioletan erai kiak izan ziren. Oraindik ere, plan ederra da txalupa txiki batean ibaian gora egitea Aginagaraino, garai bateko ontziolen arrastoak ikusiz. Orion bertan ikusiko dugu horietako aurrena: herriko plazaren aurrez aurre dagoen karraballotarrena. Errioan gora eginda, beste bat topatuko dugu Ortzaika auzoan, arraunlari pila bat eman duen auzo txikian: elizondotarren Ortzaikako ontziola. Handik gora segituta, eta Aginaga-



Azken balearen harrapaketa erakusten du irudi eder honek: Orioko Udaletxeko areto nagusian dago, beirazko horman egina.



Ezkerrean Orioko barra eta Talai Mendi, Kukuarriko igorarik ikusita. Lerroon azpian Balea elkartearen egoitzaren ondoan dagoen irudia, 1901eko gertakariak agertzen dituena.



ko muga gaindituta, garai batean ospe eta indar handia izan zuen Mapil-ekora iritsiko gara. Haraino ibilbide lasaia egingo duzu txalupa-txoan. Gaur egun kontuz ibili beharra dago, deskuidatuz gero beren bizitokia defendatzen duten bi beltxargaren eraso jasoko duzu-eta, bestela. Ziaboga hartu eta Orio aldera itzultzeko (g)unea da hori.

Agorregiko burdinola

Itsasora iritsi aurretik, Oria ibaiak duen azken ibaiadarra Altzerriko erreka da. Haren ondoan dagoen bidetik, Altzerriko kobazulo famatua atzean utzita, 500 metrora Errota baserrira iritsiko gara. Errotatik bizpahiru kilometroko bide erraz eta eder bat abiatzen da, Agorregiko burdinolara eramango gaituena. Bidea ondo seinalaturik dago eta ez dago galtzeko arrisku-

rik. Ordu erdiko paseoaren ostean, uraren soinua entzungai dugula, burdinola ikusgarriaren ingurura iritsiko gara.

Hau da Gipuzkoan geratzen diren antzinako burdinola bakanetako bat. Badirudi XV. mendetik funtzionamenduan dagoela. Horregatik bakarrik, bere itxura bitxi eta ikusgarriarengatik, eta kokatuta dagoen inguru ederrarengatik, bisitaldia merezi du. Agorregiko burdinolati ekarriko zuten, noski, Oria ibaiko ontzioletan egindako galeoiak eta bestelako barkuak hornitzeko arpoi eta aingurak egiteko burdina.

Baleari lotutako txokoak

1901eko bertsoak dira noski Orion baleak utzitako arrasto nabarmena, baina ez bakarra. Horretaz aparte, Orion bada Balea izeneko elkarte; han topatuko dituzu,

mural handi batean, egurrean dotore jarrita, 21 bertsoak, balearen harrapaketa ederki asko erakusten duen irudi ikusgarriaren ondoan. Balea elkartearen aldamenen dagoen kultur etxearen atzeko plaza ere balearen harrapaketa motiboekin jantzita dago, azulejo koloretsutan. Eta Udaletxeko areto nagusiko beirazko hormak ere balearen harrapaketa erakusten du, dotore. Huraxe erabili ohi dute argazkiaren atzealderako, ospakizunetan. Goiko Kaleko zenbait etxetako armarrian dotore agertzen dira baleak harrapatzen ibilitako barkuen irudiak. Batetik bestera, balearen ibilbidea egin daiteke Orioko kaleetan zehar. *Gertatuba jarri det egiyaren alde, an orrela ez bada jendiari galde, biyotzez pozturikan atsegintsu gaude, gora oriyotarrak esan bildur gabe.* ■



DONE JAKUE
BIDEAREN
INTERPRETAZIO
ZENTROA



ORIO



ORIOKUIDALA Kale Nagusia, 17 • 943 83 09 04 • orioturismo@gmail.com



www.oriодonejakue.net

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak

BAHETIK IGARO GAZTA	↓	ESAPIDEEN KONTRAKOTA- SUN ERLAZIO GOR	↓	GOGOBEA	↓	APUR BAT BUSTIA HAZI OLIOTSU	↓	GOLKO TXIKIA SRI LANKAKO HIZKUNTZA	↓	ZENTZURIK GABE MULTZO NAHASIA	↓
ENTZUTE, OSPE GAUZEN SEGIDA	→				↓	BIDEXKA OIHAN	→				
	↓				↓	PERTSO- NAIAREN IZENA ALDAPA	↓	PERTSO- NAIAREN ABIZENA ITSU-ITSUAN	↓		
TONA ALTU	→	TAPOTZA PERTSO- NAIAREN SORTERRIA	→		↓		↓	BERAK LIPAR, ALDIUNE	→		
	↓			KEZKA MEXIKOKO ANTZINAKO HERRIA	→				↓	MUSIKA ESTILOA ENARA	→
BABESTU, GORDE	→	ZERGA (AL- DERANTZIZ) JAIORRIEN ELIKAGAIA	→		↓	ALBOKA, SAHESKA NAFARROAKO HERRIA	→				URTEAREN HAMARGA- RREN HILA
	↓						TAXU, MOLDE BURUTIK JOTA	→			
ATZIZKI FEMENINOA HAZAMA, UNIDE	→			AIREAREN PASAGUNEA DU, NIRI	→			ZEIN EUSKO ALDERDI JELTZALEA	→		
	↓					BARRUA, BARRENA ZAKUR	→			ROENTGEN 501 ERROMATAR ZENBAKIZ	→
ETIKARI DAGOKIONA NAFARROA ETA ZUBEROA- KO MENDIA	→				↓	OTARREZ LANDATUTA- KO LUR-SAIL IODOA	→				
	↓							FESTA	→		



DANI BLANCO

Kike Amonarizen umorea

Herrien arteko sesioa

Badirudi *Finlandia* saioak berriro boladan jarri dituela gertuko herrien arteko desafioak. Ondorengo Lekeitioko adiskide umoretsu batek bidali dit –txistea irakurritakoan jakingo duzue, zergatik diodan hau–. Zuek herrien izenak eta haurren kolo-reak nahi bezala aldatu:

Hiru andra daz ospitxaleko maternidadin: ondarrutarra, leka-
txarra eta baltza. Umi euki barri-

xak. Bañe medikuk nasta etxe-
txuez umik eta eztakixe zein dan
zeñena. Andrakana juten diz eta
estetze “ia zeuen umi zein dan
baakixuen, ze nasta ein douz”.

Derrepentin ondarrutarrak
daptart ume baltzai. Danak harri-
txute: “Txo, hori ezta zure umi,
baltzara”. Eta ondarrutarrak:
“Enu arriesgatea beste bixetako
bat hartiaz, ia konfundi ta leka-
txarra hartzen barot!”.

Soluzioa

B	A	S	N	A	H	B	Z
G	A	S	N	A	H	B	Z
S	E	R	I	E	S	E	S
T	A	P	O	I	S	I	D
L	U	Z	E	A	N	I	O
G	E	R	I	Z	A	S	O
I	N	U	D	E	T	S	L
E	T	I	K	O	A	L	A
G	A	Z	T	A	R	I	I

MIHILUZE

BERRITUA

Froga berriekin gozatu eta barre egiteko



Telebistako programa
arrakastatsuaren
edizio berria!

- Erantzuna emanda asmatuko al zenuke galderaren erantzuna?
- Eroglifikoak deszifratzeko bezain ero al zaude?
- Sakiko mzkn dzn trbtasna rktsi

Eta beste hainbat froga dibertigarri...

- Zer da zer?
- Tribuaren berbak
- Potokumeak
- Horma

... zure hizkuntza aberasteko.



Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Montzoiak Indiaren biraketaren arduradun

EARTH AND PLANETARY SCIENCE LETTERS aldizkarian argitaratuta emandako artikuluan, Giampiero Iaffaldano australiar zientzialariak zuzendutako taldeak frogatu du montzoien indarraren eraginez Indiako ekialdeko kostaldea mendebaldekoa baino azelerazio handiagoarekin higitzen ari dela, eta horren




WWW.STEVENMCCURRY.COM

ondorioz azpi-kontinente osoa azken hamar milioi urteotan ordularien aurkako noranzkoan gradu bat biratu duela. Montzoiek askatzen duten uraren pisua da neurri batean Indiaren errotazioa eragiten duena.

Ikerlariak suposatzen dute azpi-kontinentearen mugimenduak eragina izango duela inguruan dauden plaka tektonikoetan, baina ezin dute ezer ere ziurtatu etorkizun hurbilean gerta daitezkeen lurrikarez.

Saturno eta Entzelado, hari elektriko lotuta

GURE PLANETAN, poloetatik gertuko eskualdeetan gertatzen dira aurorak. Horiek sortzeko, ioiek edo elektroiek eremu magnetiko bat zeharkatu behar dute, eta ondorioz oso izpi ikusgarriak emititzen dituzte. Eguzkiak emititzen ditu ioi eta elektro horiek.



NASA

Saturnon, berriz, aurora iraunkor eta ikusgarria dago, baina kasu honetan zirkunferentzia itxura du eta Entzelado satelitearekin lotzen du planeta. Entzelado Saturnotik 240.000 kilometrora dago, eta berak igortzen ditu Saturnoko eremu magnetikoa zeharkatzen dituzten ioiak; horrelaxe lortzen den aurorak zirkunferentzia itxura eta milioi bat kilometroko luzera du. Beraz, ezagutzen den kable elektrikorik luzeena da.

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

Lausotzearen aurkako estaldura

Asmakuntza honen bidez betaurrekoetan, autoetako parabrisetan eta beirazko edo plastikozko edozein gainazalean lurruna sortzea eragotziko da. Gainera, estaldura iraunkorra da.

<http://ttiki.com/26673> (Gaztelaniaz)

Makako espezie batek GIBaren aurkako immunitatea du

TRIM5 izeneko proteinaren bidez oztopatu egiten da HIESaren birusa biderkatzea, eta ondorioz infekzioa. Proteina horri esker makako espezie batek ez du HIESik garatzen, ikerlari talde batek *Nature* aldizkarian argitaratu eman berri duenez.

<http://ttiki.com/26674> (Frantsesez)

Australiako umeak, zapoaren zentzumena galtzen

Australian 8 eta 12 urte bitarteko 432 haur aztertu ondoren, 27k ez dutela azukrearen zaporea bereizten konturatu dira ikerlariak. Zaporearekin zerikusia duten beste zenbait datu ere eman dira aipatutako ikerketan. Horien arabera Australiako umeengan arazo larria sortzen ari dela ebatzi dute ikerlariak.

<http://ttiki.com/26675> (Frantsesez)

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Itxiokorria

LORETAN LURRIN LORATZEN da sasi-akazia, *Robinia pseudoacacia*, apirilean. Jorrailean. Zura ona eta lorea hobe ematen dituen zuhaitz puska hau inbaditzailea dela dio zenbaitek. Administrazio batzuek bere aurka jotzea sustatzen dute. Ni zalea nau, eta gomendio hauek haizea hartzerat! Sasi-akazia kolonizatzaile ona da, bai, beste landare batzuk baino azkarragoa izaki, horretara eboluzionatu baitu. Sustrai indartsuak zabaltzen ditu, lur-azalean gehienak. Hauetatik nonahi sortzen da altsuma eta puja, zuhaitz berriak emanez. Hazia heldu, erne eta landare berriak sortzera itxaron gabe sustraiaetako klon hauen bidez aise asko ugaritzen da.

Batzuen trikimailua azalekoa eta beste batzuen sakonekoa. Iraupena eta bizia barren-barreneko lurtean sakon barnatutako sustraiei zor dioenik ere bada. Itxiokorria, *Ononis spinosa*, besteak beste.

Itxiokorria lekadunen familiakoa da. Zuhaiak txikia ageri bada ere, sustrai izugarriak ditu, gogorrak eta luuzeak. Soro eta alorretan hazten da eta garai bateko nekazarien artean zuen fama ondo jaso du bere izenetan: itxiokorria, itxiokgeldia, geldiorria edo



MANUEL GALAN

galdarrona. Lehen hirurek nekazaria eta landarearen arteko lotura azaltzen dute: itxiok horri, itxiok geldi eta geldi horri. Hitz bitan, bakean uzteko landare. Aitzurkadaka, nahiz eta ondaitzurarekin, landarearena egitea kosta egingo zaiola eta hobe duela bere horretan utzi. Gaur egungo traktoreekin ez dago arazorik eta landare honek ez luke honelako izenik izango.

Katalanez *afrontacavadors* eta *afrontallauradors* deitzen diote, aitzurlaria lotsaraziko duena, alegia, seguruenera ez baitu ipurditik ateratzea lortuko. Galdarrona izenari beste ulerbide bat ematen zaio: golde harro ona. Goldea lurretik ateratzen omen du, goldaketa zapuatzuz. Lakoizketak 1888an azaltzen du eta Emilio Guineak bere *Vizcaya y su paisaje vegetal* liburuan 1949an berritu. Gaztelaraz *detienebuey* eta *quiebraarados*, portugesez *resta-boi*, frantsesez *arrete-boeuf*, ingelesez *restharrow* antzeko izenetik ugari du; latinez ere *remora aratri* eta *resta bovis* deitzen omen zioten. Goldea bere erretenetik atera edota heldu eta geldiaraziz idi-parea geratzeko gai diren sustraiak ez dira azaren azpiko orriak!



JAKOBA ERREKONDO

Kuiak

Aginagako Etxabal baserriko atari-aurea ikusgarri egoten da udazkeneko. Urteko kuia (*Cucurbita pepo*) uzta etxeratu eta bana-banaka txukun-txukun garbitu eta dotore asko jartzen dituzte. Urteko egun motzenak iristean azindari jaten emateko pagotxa. Orain, dagoenerako, ahaztuak ditugu lehengo urtean arto-babarrun soroetako zirrikitu eta bazterretan etorritako kuia tzarrak. Eta, dagoenerako, etorri da datorren udazken-negu parteko bazka ederra izango diren kuia berriak haziko dituzten landareak jartzeko sasoi.

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Olanoren emazteak bere izena du



Eulalia Abaituaren *Emakumeak merkatuan* argazkia. 1990ean Alberto Schommer argazkilariak zera esan zuen Abaituaren lanari buruz: "Bere herria maite duen eta interpretatzen duen begi sentikorra da (...) benetako erreportaria". Gainera, bilbotarraren purutasun morfologiko eta etnografikoa eta naturaltasuna nabarmendu zituen.

BILBO, 1906. Elespuru anaiek Aristides Artiñanoren *Reseña de las fiestas de Elorrio en honor del Beato Valentín de Berrio-ochoa obispo y mártir* lana argitaratu zuten. Lanak argazki sorta bat ere bazuen eta, argazkien oinean, "Fotografía de la Sra. de Olano" sinadura. Juan Narciso Olano lesakarraren emazteak Eulalia Abaitua zuen izena.

1853ko urtarrilaren 25ean jaio zen Bilbon, eta María Elvira Juliana izenez bataiatu zuten. Baina Eulalia ama erditu eta gutxira hil zen, eta haren omenez alabari ere Eulalia esaten zioten. Luis Abaitua aita saleroslea izanik, haurtzaroa han eta hemen eman zuen Eulaliak. Ustez, ikasketak Bartzelonako Sarrià auzoko Sagrado Corazón de Jesús ikastetxean egin zituen, baina bertako artxiboa 36ko Gerran suntsitu zutenez, horren frogarik ez dago. Bai ordea, 1871. urtean Ingalaterran bizi izanarenak, Liverpoolleko Everton auzoan. Han eza-zutu zuen Juan Narciso Olano.

1878an senar-emazteak Euskal Herrira itzuli ziren, Begoñara hain

zuzen. Basilikaren ondoan estilo ingelesko Pinuaren Jauregia eraiki zuten, eta etxe hartako sotoan Eulaliak argazki laborategia prestatu zuen. Egoera ekonomiko bikainari eta bizitza osoan egindako bidaiei esker, garai hartan emakumeentzat ezohikoa zen jardueran trebatu zen, argazkigintzan; Euskal Herriko lehen emakume argazkilaritzat jotzen da. Erretratuak Venezian, Erroman, Marokon, Kretan... egin zituen, baina lanik bikainenak egiteko ez zen urrutira joan. Abaituaren argazkirik onenek bere inguruko pertsona anoni-moak eta eguneroko eszenak erakusten dituzte.

Eulalia Abaitua 1943an hil zen, 90 urte zituela, baina bere lana ahaztuta egon zen Bilboko Euskal Museoak erosi zuen arte. Egunotan, eta maiatzaren 29ra arte, bilbotarraren 55 argazki eta 161 erreproduktzioz —gehienak ezezagunak— osatutako proiektzioa ikus daiteke. Erakusketak *Eulalia Abaitua argazkilaria* (1853-1943) du izena.

Arrastoak

Google, museorik zehatzena

GOOGLE bilatzaile ezagunak, artea birtualki hurbiltzeko, www.googleartproject.com gunea osatu du. Bertan, 385 museo eta galerietako —esaterako, Londreseko National Gallery, New Yorkeko MOMA eta San Petersburgoko Hermitage— eta 486 artistak egindako mila artelanetik gora bildu dituzte bereizmen handian. Gainera, hamazazpi koadro gigapixeletan digitalizatu dituzte: argazki bakoitzak 14.000 milioi pixeleko bereizmena du, eta beraz kamera arrunt batek baino 100 aldiz xehetasun handiagoa eskaintzen du. Galeriak bisitatu ahal izateko 360 graduko Street View teknologia baliatu dute. Hori guztiari esker, erabiltzaileak bere bilduma osa dezake.



James McNeill Whistlerren *Portzelanaren herrialdeko printzesa*.

Sestao

Krisialdiaren kronika

Ibaizabal itsasadarreko Ezkerraldea (Bizkaia) dugu euskal industria iraultzaren jaioterria. Bertan sortu ziren, XIX. mendearen azken laurdenean, milaka eta milaka pertsonari lana eman zieten ontziolak eta labe garaiak. Haien babesaz, etenik gabeak ziruditen eskualdearen hazkunde demografikoak eta ekonomikoak. Ehun urte geroago baina, 80ko hamarkadan, Europak agindutako birmoldaketak ongizate egoera hura deuseztatu zuen. 1978an 42.905 biztanle zituen Sestaok, 29.500 ditu egun. Amesgaizto haren ondorioak gainditu gabe, krisialdiak berriro zigortu du: Euskal Herriko langabezia tasarik handiena duen udalerria da.



Sestaoko etxebizitza zaharkituak, atzean *Maria Angeles* labe garaia dutela.

ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN

Testua eta argazkiak:

IBAIZABAL ONDOAN, Sestaoko beheko partean, XIX. mendean padurak izan zirenekoan, behin 10.000 pertsonari lan eman zien Altos Hornos de Vizcaya (AHV) fabrika gogoratuz, Maria Angeles labe garaiak zutik dirau. Handik gertu ditugu AHVren ondorengo altzairutegi

konpaktua, ArcelorMittal, eta La Naval ontziola, burdinazko Bizkaia-ren azken lekukoak. Trenbidea zeharkatuz, Txabarri auzoa dugu. Bertan egiten dute bat Sestaoko iraganak eta orainak: 80ko hamarkadako krisiaren ondorioz andeatuta dauden langileen etxebizitzak eta,

auzoa onera ekartzeko asmoz, martxan dauden lan publikoak ditugu elkarren parean.

Desagertu dira, baina, langileei jaten eta edaten ematen zieten taberna zaharrak. Harrezkero, 15.000 biztanle inguru galdu ditu Sestaok. Langabezia tasa %21'6koa



Obra publikoen eraginez 650 lanpostu sortu dira Sestaon, baina amaitzeaz daude.

da, Euskal Herriko handiena. “Birmoldaketa garaietatik Ezkerraldea izan da Euskal Herrian langabezia tasarik handiena eduki duen eskualdea, eta bertan Sestao nabarmen-tzen da. Ordudanik, burua ez dugu-la altxatu esan dezakegu. Eramangarriak izan zitezkeen lehengo zenbakiak, baina herria ez da suspertu”, azaldu du Cáritas-eko Maribel Vadillok.

Jende berria Cáritas-era

Cáritasen zerbitzuak betidanik erabili izan dituzten ohiko baztertuei, jende mota berria gehitu zaie: “Ijitoekin, osasun arazo larriak dituzte-nekin eta erakundeen laguntza publikoren bat eskatu nahian dabil-tzanekin lan egiten segitzen badugu ere, talde berriak ditugu gaur egun. Deigarria da oso etorkinen agerpen

jendetsua, hona datozenen %70 dira egun: Espainian eraikuntzan edota ostalaritzan hainbat urte lan egin dutenak dira gehienbat, orain, krisia medio, langabezian geratu direnak. Hemengo egoera Andaluziako edo Kanarietako baina hobea da, eta laguntza publiko gehiago daudenez, etorkinak hona etorri dira”, dio Vadillok.

Aldi baterako kontratuak izan dituztenek osatzen dute beste talde bat: “Batzuek, oraindik ere, langabeziaren saria edota laguntza osagarriak jasotzen dituzte. Familiaren laguntzarekin jotzen dute aurre-rantz. La Navalen edota eraikuntzan lan egiten zuten, eta aldi bate-rako kontratuak izan dituzten arren, sekula ez dira lan faltan izan. Ogibi-dea duen jendea da, egun lanik aurkitzen ez duena. Haietako asko

lehenengoz etorri da hona”, dio Cáritaseko harrera zerbitzuan diharduen Begoñak. “Ez dute diru laguntzarik nahi, lana baizik. Hipotekak ordaintzen ari dira eta ezin diete ordaintzeki eutsi. Gainera, behin etxea galduta ere, zorrari aurre egin behar diote, etxebizitzak oso salneurri altuetan tasatuta baitaude”. Izan ere, gero eta arrunta-goak dira etxeen bahiturak. Guraso bakarreko familiak —emakumeak, batez ere— eta 40 urtetik gorako langile langabetuak dira kaltetuenak. Gazteek, normalen, ez dute etxea eskuratzetik.

Langabetuen Asanblada berri martxan

Sestaoko Langabetuen Asanblada duela hogeita 30 urte jaio zen, birmoldaketarekin. Haren partaide Txetxe García Montes bat dator Begoñak esandakoarekin: “Jendea berriro hasi da rera etortzen, lehen bezala. Gazteak dauden arren, berrogeita hamapiku urteko langile gaituak ere baditugu gure artean. La Navalen, Babcock & Wilcoxon eta ArcelorMittalen egonak dira. Hauek guztiak egoera txarrean daudenez, aldi baterako kontratuak ere galdu dituzte”.

Lehenago esan dugun lez, langabeziak etxebizitza arazo berriak ekarri ditu arlo honetara, eta Sestaori beste itxura bat eman dio: “Batzuek etxea galdu dute eta beste batzuek alde egin behar izan dute. Etxe berriak eta babes ofizialekoak eraiki badituzte ere, Sestaoko etxebizitza gehienak zaharrak eta txikiak baitira”, kontatzen du Maribel Vadillok, “Horrela, bikote gazteek errazago aurkitzen dute behar duten etxebizi-

IBERNALO

landetxea - jatetxea

Gozatu naturaz: hipika, arrantza, golfa, eskalada, amildegia...






01110 Kanpezu (Araba) - ☎ 945 102 271 / 647 911 484 - www.ibernalorural.com

tza mota beste udalerrietan, eta salneurri berean. Etxe zaharretan etorkinak bizi dira orain, konpartitzen dituztelako”. Horren guztiaren ondorioz, Sestaoko biztanleria zaharkitu egin da. Dauden haurrak etorkinenak dira –etorkinen kopurua %40 hazi da azken urteetan–.

2.755 langabetu dago Sestaon. Haietatik, gizonak 1.441 dira eta emakumeak 1.331. Erdia gazteak dira. %65 ez daude gaituta, eta lan merkatuan sartzeko dituzten aukerak gero eta urriagoak dira. Nahiz eta industriagintzarako garai onak ez izan, bertan egiten dute lan sestatar gehienek. Zerbitzuak (1.649 langabetu) eta eraikuntza (458) dira sektore ekonomikorik zigortuenak.

Krisi ikusezina oraingoan

Gustavo Izquierdo garraiolariak lan egiteko alde egin behar izan zuen. Gaur, Agurainen bizi da. Lantzean behin, herrira bueltatzen da, familia eta lagunak bisitatzen: “Krisialdiak sektore zehatz batzuk kaltetu ditu eta hainbat gauzari uko egin behar izan diete. Beste guztiek –lana dute lako edo familiak sostengatuta daudelako–, ordea, segitzen dute betikoa egiten: kalera ateratzen dira, tabernetara joaten dira... Jende nahikotxo ikusten dut nik Sestaora etortzen naizenean”. Alboan dugu Juanma Blasco tabernaria, eta baieztatu egin ditu Gustavoaren esanak: “Krisialdia egon arren, lehen beste taberna dago, jendeak egoera ahaztu nahi du, etxean sartuta egin ezin duena. Dendekin berdin, nahiz eta kontsumoak beherantz egin duen”.

Saltoki xumeak dira Sestaokoak: betiko janari dendak, bazarrak... “Egia da kalitatezko merkataritzarik ez dugula, jantzi dendak edota etxe tresna elektronikoak erosteko komertzioak falta dira. Betikoa daukagu, baina berritzatu gabe”, dio Cáritaseko Begoñak.

Egoerak ez du ematen, beraz, 80ko hamarkadan bezain katastrofiko: “Egungo egitura ez da duela 30



Sestaoko langabetuen aldeko afixa. Langabetuen Asanbladak 30 urte ditu eta egungo krisiarekin biziberritu egin da.

urtekoa. Krisiaren eragina ikusezina da orain. Gaurko gizarte sisteman, nahiz eta lan merkatutik kanpo egon, oraindik kontsumoari eustea posible da, txinatarren dendetan bada ere”, azaltzen du Jakue Pascual soziologoak. “Egungo gizarteak hamaika geruza ditu, ez da aurrekoa bezain homogeneous. Handiagoak dira muturren arteko tentsioak. Hor ditugu gizarte zerbitzuen menpe daudenak, langabezian sartu berriak direnak, aldi baterako kontratuei esker bizi irautea lortzen dutenak, betiko langileak –egun, langileariaren heren bat baino ez–, funtzionariak, ertaineko klase berria, eta abar. Krisi berriak, beraz, ez du aurrekoak izan zuen isla bera kalean”.

Ohikoa den bezala, lan publikoak sustatzea izan da erakundeek kri-

siari eta langabeziari emandako erantzuna. N plana, Sestaoren Aldeko Apustua edo Sestao Berri ditugu Bizkaiko Foru Aldundiak (EAJ) eta Udalak (PSE) bultzatutako ekimenak. 650 lanpostu sortu ditu Udalak lan publikoen bidez, baina herria urbanizatzeko obrak bukatzeaz daude. ArcelorMittalen aurtengo aurreikuspen baikorretan eta kapital publikoaren bidez La Navalek eskuratutako kontratu berrietan datza itxaropena. “Gauza hauek guztiak adabakiak jartzea baino ez dira”, dio Begoñak. “Dauden ikastaroak, adibidez, ez dute ezertarako balio, ez dute

lana aurkitzeko balio. Hauteskundeak begira eginda daude. Luzea da oso Udalak duen zerrenda”.

Txetxe Garcia Montesek sobera ezagutzen du gaia: “Mota guztietako ikastaroak egin ditut eta haietako asko lan merkatuan sartzeko baliagarriak izan daitezkeen arren, ez dira ezertan geratzen, lan eskarmentua eskatzen digutelako”. Langabetuek arduratuta ikusten dute panorama: gutxi dira lan aukerak eta Sestaoko ehun ekonomiko ahula ez da lanpostu gehiago sortzeko gai. “Egoerak beltzean egindako lana suspertu du. Langileek ez dute ezelako eskubiderik. Askok ez dira inoiz erretirora helduko, osasuna eta pentsioak pribatizatzen ari dira”, dio, pentsakor, Begoñak. Askoren aburuz, txarrena iristear da. ■

MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

☎ 943 450 966

Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

SOLOZABAL
Eskura ezazu teorikoa 5 egundetan
edozein gidabaimenerako

■ IKASTARO INTENTSIBOAK
■ CAP IKASTAROAK
■ ADR IKASTAROAK
■ GARRAIOLARIEN LANBIDE-
TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es

Aurkezle ikastaroa

Jendaurrean aritzeko trebatzen

Jendaurrean hitz egiten ikasi egiten dela diote adituek. Komunikazioaren puzzlea osatzeko zatiak ahuspez ditugula edo horietako baten faltan egotea, ez da harritzekoa. Zerbaitegatik eskaintzen dira gero eta ikastaro gehiago, ahoz komunikatzeko gaitasuna lantzeko.

SAIOA LABAKA

Argazkia: Donostiako Euskararen Udal Patronatua

KIROL ETA AISIALDI ekitaldietan euskaraz arituko diren aurkezleen-tzako edo alor horietan lan egin nahi dutenentzako, trebakuntza ikastaroa antolatu dute Donostiako Euskararen Udal Patronatuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, hiru-garren urtez. Urtarriletik martxora bitartean, hamahiru gazte bildu dira Mintzola Fundazioaren egoitzan, jendaurrean egoki eta eraginkor hitz egiteko teknika eta baliabideak barneratzen. Manu Marañon, Julia Marin, Jon Alegria eta Haizea Muñoz izan dira trebakuntza saioko irakasleak.

Antolatzaileek mota horietako ekitaldietan aurkezle euskaldunen premia dagoela ikusi dute. Batez ere, kirol eta aisialdi ekitaldi xumee-tan nabaritu dute hutsunea. Ekitaldi ezagun eta handietan, berriz, errazagoa izaten da irrati-telebistan dabilzan aurkezle ezagunak topatzea. Hori dela eta, aurkezleak trebatzea da helburu nagusia. Era berean, aurkezle horiek ezagutzera emateko beharra ere ikusi dute antolatzaileek. Izan ere, askotan, kirol eta aisialdi elkarteek ez dituzte aurkezle euskaldunak behar bezain erraz aurkitzen eta nora jo ez dakitela geratzen omen dira. Gabezia horri aurre egin nahian, www.euskaraz.net eta www.kirolaeuskaraz.net webguneetan lan egiteko prest dauden aurkezleen zerrendak jarri dituzte.



Nagusiki kazetaritza eta ikus-entzunezkoen alorreko gazteek egin dute ikastaroa, Villabonan egoitza duen Mintzola Fundazioan.

Konfiantza abiapuntu

Hainbat komunikazio egoerari aurre egiten abila izatea garrantzitsua da gaur egungo gizartean. Prestakuntza, lana eta praktika: hiru zutarrietatik saltoka ibiltzearen ondorioz lortzen da jendaurrean hitz egiteko trebetasuna. Antolaketa, berriz, komunikazio eraginkorraren iturburu da. Behatzaile izatea, ikasten jarraitzeko aukera bat ere bada. Manu Marañon irakasleak ikasleen autoestimua, konfiantza eta segurtasuna indartzea helburu izan zituen bere saioetan. Ahozko komunikazioa eta jendaurrean hitz egiteko tekniken inguruko ikastaroak ematen ditu erakunde eta elkarteetan. “Oro har, jendeak nahiko ondo hitz egiten du jendaurrean. Baina euren ustea bestelakoa da; normalean ez dago loturarik egiten dutenaren eta pentsatzen dutenaren artean. Elementu negatiboetan arreta jartzeko joera da nagusi eta zaila da pentsamendu hori aldatzea”.

suna indartzea helburu izan zituen bere saioetan. Ahozko komunikazioa eta jendaurrean hitz egiteko tekniken inguruko ikastaroak ematen ditu erakunde eta elkarteetan. “Oro har, jendeak nahiko ondo hitz egiten du jendaurrean. Baina euren ustea bestelakoa da; normalean ez dago loturarik egiten dutenaren eta pentsatzen dutenaren artean. Elementu negatiboetan arreta jartzeko joera da nagusi eta zaila da pentsamendu hori aldatzea”.

Aitor Abaroa eta Idoia Gereñu

“Irakasle oso jantziak izan ditugu eta antzeman da”

Ikastaroa egin duten bi lagunekin hitz egin dugu euren esperientzia biltzeko. Abaroa lekeitiarrak Itzulpengintza eta Kazetaritza ikasi ditu eta Gereñu debarra Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak langilea da.

Zergatik ikastaro hau?

A. Abaroa: Herri mailan antolatzen diren ekitaldiak edo jardunaldiak direla, beti jende beharra egoten da gauzak egiteko eta hainbat ekintza aurkezteko. Bestalde, zenbait hedabidetan egin dut lan orain artean, eta aurrera begira ere, nork daki komunikabideetan lan egitea egokituko zaidan. Jendaurrean hitz egiten ikastea eta hobeto moldatzea, beti ondo etorriko den kontua da.

I. Gereñu: Gaur egun, jendaurrean hitz egin behar izaten dut noizean behin, eta oinarri teoriko batzuk jasotzeko, nire burua nola moldatzen den ikusteko eta kanpotik kritika bat jasotzeko helburuz eman nuen izena ikastaroan. Praktikatzeko, nire burua gehiago ezagutzeko eta esperientzia hartzeko, azkenean.

Nolako esperientzia izan da?

A. Abaroa: Oso gustura egon gara ikastaroan. Talde txikia bildu gara eta oso pertsonalizatua izan da trebakuntza. Bakoitzak egin ditugun ariketa eta praktika guztiak, modu pertsonalizatuan aztertu dira. Mintzolan izan ditugu saioak, eta azpimarratzekoa da bertan eskueran izan ditugun baliabideak. Ariketa gisa egin genituen aurkezpenak grabatu egin genituen, eta momentuan bertan geure burua ikusteko aukera izan genuen. Ondo egindakoak eta zer hobetuak momentuan aztertu ahal izan genituen.

I. Gereñu: Niretzat ikastaroa oso baliogarria izan da. Ikastaroan landu diren alderdi teoriko batzuk ezagutzen nituen antzerki mundutik natorrelako, baina praktikak egin ditugun momentu horiek oso interesgarriak iruditu zaizkit. Irakasleak oso jantziak izan ditugu eta antzeman da. Ez da azaleko ikastaroa izan. Praktikan jarri behar da orain ikasitako guztia, eta nire lana dela eta, aukera izango dudanez, saiatuko naiz horri eusten.

Praktika ezinbestekoa

Helburuak, mezua eta entzuleak, arnasketa, abiadura eta isiluneak, gorputz mintzaira eta ahotsa, aurkezpenaren prestaketa, autoestimua eta konfiantza, jarrera eta motibazioa, urduritasuna, gidoia, lagungarri bisualak... gisa honetako ikasgaiak eman zituen Manu Marañonek. Teoriatik praktikarako jauzia ezinbestekoa denez, ariketa eta praktika asko egin zituzten. Egindako lanak grabatu, eta ikasleek euren burua ikusteko eta aztertzeko aukera izan zuten. “Ikasleen jardunen alderdi onak azpimarratzen saiatu gara beti, euren segurtasuna indartzeko. Ikasle gazteak eta ikasteko gogo handia dutenak izan ditugu. Nagusiki, kazetaritza eta ikus-entzunezkoen arlotik etorritakoak. Proposatu zaizkien praktikak asko landu dituzte eta hobetzeko prest agertu dira beti. Uste dut etekina atera

diotela ikastaroari, euren jarrera eta motibazioari esker”, adierazi digu Marañonek.

Euskararen doinuaz

Ahoskera eta hizkuntzaren doinua landu zituzten, beste aldetik, Julia Marin irakaslearekin. Ahoz goran irakurtzeko testuen ezaugarriak aztertu zituzten lehenik; pentsamendua nola antolatu, ideien lotura nola egin eta aurkezpenaren haria nola bideratu ere bai, ondorik. Euskararen prosodiari dago-kionez, irizpide argien faltan, gaztelaniaren zantzuak nabarmenak direla aipatu zigun Julia Marinek. “Alor askotako jendearekin ibiltzen naiz ahoskera lantzen, eta zer irizpide jarraitzen dituzten galdetuz, intuizioa eta sena erabiltzen dituztela erantzuten didate. Antzezleak, irakasleak, idazleak... nahiko galduta daudela esango nuke euskararen alor honetan, eta normala da.

Zentzu honetan, dena daukagu egiteko”. Hizkuntzaren zuzentasuna eta testuaren interpretazioa ere landu zituzten, besteak beste. Ildo horretatik, ahotsaren inguruko azalpen orokorrak ere jaso zituzten ikasleek Haizea Muñoz irakaslearen eskoletan.

Ekitaldietara egokitzea

Jon Alegria kirol esatariaren esku-tik, berriz, kirol ekitaldi motak eta horien aurkezpenen ezaugarriak aztertu zituzten. Kirol esatarien berezitasunak nabarmendu zituzten; kirola ezagutu beharra, animazioa sortzeko gaitasuna eta elebiduna izatea. Aurkezpenen erakargarritasuna, kirolari eta ikuslearen arteko lotarria eta animazioa sortzea lirateke, aurkezle orok landu beharreko gaitasunak, besteak beste. Esatarien jokaerak kirolaren arabera nolakoa izan behar duen ere izan zuten mintzagai. ■

Babeslea: Bermeoko Udala

MAIATZAK

13

13:30 ean

Geurien be bai

Enpresa, merkataritza eta elkarteetako lana aitortzeko ekitaldia



Kalipán



BERMEOKO
UDALA



Geurien be bai

“Arratia inguruko Hiztegia”

ARRATIA INSTITUTUKO Angel Larrea eta Juan Rekalde irakasleek atera zuten *Arratia inguruko Hiztegia* iaz. Orain bigarren edizioa kaleratu dute. Biak Bizkaiko Arratia institutuko irakasleak dira eta haien iritziz euskararen mailak eta erabilerak behera egin dute Arratian. Etxeko altxorra babesteko ikasleei laguntza eskatu zieten eta gazteak aitona-amoniei eta grabazioak egiten ibili ziren. Material aberatsa bildu zutela ikusita, liburu formatua eman zioten. Hiztegiak 25.000 sarrera dauzka eta 900 orrialdetik gora.

Arana Martija hil da

JOSE ANTONIO ARANA MARTIJA (Gernika-Lumo, 1931) euskaltzain emeritua hil zen apirilaren 26an. Zuzenbidean eta Ekonomian lizentziatua, Euskaltzaindiko liburutegiaren arduradun izan zen 1978tik 1996ra, erretreta hartu zuen arte.



EUSKALTZAINDIA

Gramatika zubereraz

JÜJE ETXEBARNEK *Gramatika Emen-dakinak*. *Zuberoako euskaraz* liburu argitaratu du Euskaltzaindiaren Jagon bilduman. AEKren Xiberoko Gau Eskola Laminak-en laguntza izan du eta euskara ikasleentzako eskuliburu sinple eta erabilgarria egin du.

BAHEA

Marytwo erabiltzaileak Tirakan esanak:

“Badut lankide bat, ‘Metxa’ esaten diotena, euskaltzalea ez ezik saltsa guztietako perrexila dena. Metxak ez daki ixilik egoten, eta aipatzen ari naizen batzar horietan [langile batzarrak] nekez egongo da eskua altxatu gabe. Eta bera bakarrik, hitza hartu eta ordurarteko eztabaida-hariari buelta emateko kapaza da, eta batzarraren norabidea aldatzeko, ordurarte erdaraz esandakoak bildu eta euskaraz erantzuteko. Euskarazko kontagailua zeroan jartzen du, eta erdaraz jardun izan direnak ere euskaraz hasten dira bat-batean. Ai, Metxa bezalako gehiago edukiko bagenitu gure artean! Ez dira asko behar, 60 laguneko batzar batean bospasei Metxak su dezente piztu dezakete’.

Joseba Kamiok Neure (h)egitik blogean esanak:

“Berdin gerta dakioke ekintzaren beste edozein arlotan hiperpolitizazioak jota dabilen edonori, batez ere ekintza gatazka gisa planteatzen denean: euskalgintza, erlijioa, ekologia e.a. Den-denek ardi galdu gisa tratatuko zaituzte, kasurik onean, aurpegiatzeak-eta ohikoak izaten dira-eta. Batzuentzako onartezina da euskalduna izatea eta euskara ez izatea zure nortasuna eta bizimodua egituratzen duena; beste batzuentzako onartezina da Jesusen irakaspenak ez izatea zure bizimoduaren ardatza... ‘Ez badira enteratzen, enteratu nahi ez dutelako da, guk pasa den etean eman baikenuen prentsaurrekoa’ esango dizute, inolako lotsik gabe...”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Chicagoko Martiriek 125 urte

Joan den maiatzaren lehenean 125 urte bete ziren Ipar Amerikan 18 ordu beharrean 8 ordu lan egitearen alde borrokatu ziren sei langile kondenatu eta haietako lau hil zituztenetik. 1886ko maiatzaren 1ean zortzi orduko lanaldiaren alde greba orokorra egin zuten AEBetan. Egun horren epizentroa Chicago izan zen eta bortitz aritu zen polizia, grebalari asko hilez. Kaosaren erdian bonba lehertu zen, ustez poliziaren kontra jaurtitakoa. Haietako batek bizia galdu zuen. Gertakari horren ondorioz –Haymarket-eko atentatua izenez ezaguna– sei langile atxilotu eta auzipetu zituzten, nahiz eta haien parte hartzea inoiz ez zen frogatu ahal izan. Sei langileak urkan hiltzera kondenatu zituzten, haietako biri kondena komutatu zitzaizen arren bizi guztian derrigorrezko lanak egitearen truke. Harrezkero, Chicagoko Martiriak deitu zaie. Hori da maiatzaren leheneko ospakizunaren jatorria, nahiz eta, data hilgarri hura gogoratzeko, 1890eko maiatzaren lehena arte Lanaren Eguna ospatzen ez hasi.

Orain, Euskal Herrian egun hori ospatzen segitzen dute, kontsumo gizarteak jai egun bihurtu duen arren aldarrikapen egun baino. Egoerak ez dira konparagarriak. Hala ere, sindikatuak mobilizatzeko deia egiten jarraitzen dute, enplegu duinaren alde eta prekarietatearen kontra, bai eta langileen borroka lortutako eskubide sozialen defentsan, orain, Europako gobernuen erreformekin, arriskuan dauden eskubideak hain zuzen. Euskal Herrian, gainera, arlo sozioekonomikoan erabakitzeak eskubidea ere eskatzen da, eta ondorioz, lan harremanen euskal markoa aldarrikatzen dute, sistema eta negoziazio kolektibo berezkoa. Maiatzaren lehena aldarrikapen horientzako bozgorailua izan zen. Eta lehen aldiz 2004tik, euskal sindikalgintza baturik manifestatu zen.

Juan Mari Arregi

Konstituzionalaren esperantza

ESPAINIAKO Auzitegi Gorenaren ustez Bildu lege kanpo uzteko gakoa honakoa da: Batasuna etengabe ari da hauteskundeetan aurkezteko ahaleginean 2003an lege kanpo geratu zenetik eta Bildu helburu horren ahalegin bat gehiago da. Kito. Onartzen du Alternatiba eta EA alderdi demokratikoak direla, baina uste du engainatzen utzi direla eta orain beren erabaki okerraren ondorioei aurre egin behar dietela.

Zein frogekin esan daiteke barrabaskeria juridiko hau? Funtsean honakoak: estrategia soberanistari erreferentzia egiten dioten ETA eta Batasunaren hainbat agiri; EA, ezker abertzalea eta Alternatibaren akordio estrategikoak; hauteskundeetara elkarrekin aurkezteko alderdi horietako buruzagiek egindako adierazpen publikoak; eta batez ere, Bilduren zerrendetan dagoen independente kopuru handia, eta horrek frogatzen duelako, alderdirik garrantzitsuena Batasuna dela. Antolaketa ahalmena ere frogatzen du: "Antolaketa maila handi hori, hain denbora gutxian eta isiltasunean antolatze gaitasun hori, horrek guztiak ezinbestean adierazten du atzean ETA-Batasuna direla". Bai, egia da Bilduk biolentzia arbuiazen duela eta hori

guztia –dio epaiak–, baina hori ETArekin agindua besterik ez da, bestelako aurrekarietan ere, hauteskundeetan egoteagatik ETA saiatu da gisako gezurrekin.

Ebazpenaren aurkako sei epai-leak, osteratzen, osagai objektibo eta zehatzak aipatzen dituzte, besteak beste, EA eta Alternatiba alderdi erabat demokratikoak direla eta behin eta berriz gaitzetsi dutela ETA. Baina batez ere, eta hau zuzenbidean oso garrantzitsua da, testuingurua hartzen dute aintzat, eta hor kokatzen dute ezker abertzalearen baitan izandako eztabaida, non jardura armatuaren aurkakoei irabazi duten.

Bildu ETArekin agindua dela gezurtatzeko 2005eraino doaz, eta erakusten dute nola EAko Rafa Larreinak Arnaldo Otegi aliantzarako eskua luzatu zion Eusko Legebiltzarreko hitzaldi batean, beti ere giza eskubideak oinarri eta ETArekin babesetik kanpo arituz gero. Beraz –diote epaiak hauek–, asmo hauek frogatzen gisa erakutsitako ETArekin agiriaren hausnarketak baino askoz lehenagokoak dira. Zerrendetako independente kopuruari dagokionez ere, hauen ustez erabat logikoa da gehienak ezker abertzalekoak izatea, ezker abertzalea delako koalizio horretako indarrik handiena.

Erabakia Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren esku dago orain. Ez dirudi tarteko biderik izango denik, nahiz eta ezin den baztertu presioen ondorioz erabaki salomonikoren bat hartzea, eta 2007an bezala, hautesle zerrenda batzuk debekatzea eta besteak baimentzea.

Herritarren eskubideen ikuspegitik ondorioak oso larriak dira eta hauteskundeak hala egingo balira, erabat zilegitasunik gabekoak lirateke. Baina eragin handia izan dezakete arantzatsuak diren hainbat gaietan (adibidez zaborraren kudeaketa). Datozen garai berrietan pentsatuz eta herri ikusmoldez jarduteko garaia da hauek eta hala egiten duenak jasoko du uztarik etorkizunean. Hauteskundeak oso garrantzitsuak dira, agerikoa da hori, baina Bilduko indarrek kontuz ibili beharko lukete salaketaren joko hutsean ez erortzeko. Hori ere bai, jakina, baina funtsean bake prozesua da aurrera atera behar dena, eta hau ondo egiten bada, estrategia soberanistak etorkizun oparoa izan dezake. Besteak beste, Espainiako halako jarrerekin kolore anitzetako independentisten sinesmena indartu besterik ez delako egiten.

gure artean euskaraz

Euskaltzale bizkaitarrak

100. urteurrenean

GAU ILLUNA (S. Juan de la Cruz)

“Gau illun batez barrua
maitasun-antsiz sutan nebala,
zorioneko ordua!
urten dot inok ez nenkusalá,
nire etxea baketan zala.”

(1911-1991)

Aita Lino Akesolo Olivares



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

PELLO ZUBIRIA

Ur teknologikoa: iturriak nola pribatizatu dituzten

Ura oinarritzko ondasuna da gizakiarentzako, arnastu beharreko airea adina. Aldiz, azken hiru hamarkadotan enpresa handiek lortu dute munduko elite guztien artean dogmatzat pasaraztea hura salerosgai arrunta dela, beste herri ondasun guztiak bezala pribatizatu beharrekoa. Riccardo Petrella irakasle zaharrak kontatu du nola.

RICCARDO PETRELLA (La Spezia, 1941) maisu italiarrak lanean segitzen du erretretan egonagatik. Zientzia politikoak eta ekonomia ikasi ostean, unibertsitate askotan aritu da irakasle. Baina gehienik ezagutua da mundializazioaren kritikan eta herri ondasunen defentsan –urarenen batik bat– egin dituen lanengatik.

Apiril hasieran *Le Monde Diplomatique* aldizkariak Interneten dauzkan blogetako batean Petrellak argitaratu du “*Vers l'eau technologique?*” –”Ur teknologikoruntz?”– artikulua kontatuz azken 30 urteotan uraren inguruko argudioetan ikusi duen bilakabidea: “Uraren kudeaketa integralaren kontzeptutik abiatuta uraren urritasunera pasatuz eta gero-ago adieraziz salbazioa ‘ur teknologikoan’ datzala, guztien oinarritzko ondasun honen merkantilizazioaren aldekoak borroka ideologikoan sartuta daude azken hogeita hamar urteotan”.

Urarena jotzen du Petrellak globalizazioak ekarri duen mistifikazio nagusitzat. “Ura lehen zena ez dela sinetsarazi nahi digute”. Mugarrizko data, 1992. urtea, urte horretan ezarri baitzieten Iparraldeko estatu aberatsek gainerako nazioei ura gai ekonomikotzat hartzea. Hala ageri da Dublingo Ituna deituan, hirugarren atalburuan: “Bere erabilera garrantzizko guztietan urak balio ekonomi-

koa daukanez, ondasun ekonomikotzat onartu behar da”.

Uraren esanahi berri hau Munduko Bankuak bultzatu zuenez, berak zabaldu zuen 1993tik aurrera mundu osoan, ematen zituen kreditu guztietan exigituz uraren prezioak kontutan har zitzala berreskuratu beharreko koste guztiak. Tartean, inbertsioa egin dutenei ordaindu beharreko irabazia. Horrela zabaldu zen *Integrated Water Resources Management* delakoa, Ur Balibideen Kudeaketa Integratua alegia. Ondoko urteetan, Munduko Bankuaren gerizpean erakunde mordoska sortu zen; nabarmenena, Uraren Munduko Erakundea, izen ponpoxoaren azpian talde pribatuen elkargoa ezkututzen duena.

Eskema berria, ura ekartzeak eragindako koste guztiak berreskuratu beharrarena (*full cost recovery principle*) Europar Batasunaren 2000. urteko zuzentarauan agertuko da, eta herrialde gehienetako lege berrietan. Aurrez aurre sindikatuak eta mugimendu sozialak aurkituko ditu, baina unibertsitateko akademikoak bezala politikariak gehienbat alde.

Argudio honek ireki dio bidea hausturari, Petrellaren ustez: gizakiarentzako ura gero eta urriagoa dela. Korporazioen interesak defenditzen dituzten taldeek “sinetsarazi digute uraren urritzea ezinbestekoa zela, munduko populazio gero eta han-

diagoak eta garapen ekonomiko mugagabeak gero eta ur gehiagoren beharra zekartelako. Aldiz, uraren urritzearen kausa nagusiak konpontzeko eta atzeratzeko modukoak dira, uraren erabilera txarrari lotuta daudelako”. Iturrien gehiegizko ustiaketa, kutsadura, kudeaketa burutsurako lege egokirik eza... denak ahaztu eta eten gabe nabarmenduko da uraren urritasuna.

Gudu ideologikoa berreskuratu

Azken urteotan uraren inguruan gero eta indar handiagoz zabaldu diren hiru tesi gezurrezko agerian utzi beharra azpimarratzen du Riccardo Petrellak.

Hasteko, uraren balio ekonomikoa, *valuing water*, biluztu behar da. Multinazionalak diote urari ez bazaio balio ekonomikoa aitortzen, kapitalak ez direla hornidurak behar dituen inbertsio handietan interesatuko. *Valuing water*, ordea, uraren azpiegituren kosteez gain funtsean mundu mailako espekulazioari dago lotuta.

Uraren kudeaketaren atal direnak negozio lerro ezberdinetan zatitzen dira errentagarritasun irizpideen arabera (urtegiak, iturriko uraren banaketa, saneamendua, ur zikinaren birziklatzea, itsasoko uraren gezatzea, teknologia zerbitzuak, kudeaketa informatikoa...) baina beti talde multinazional handien eskutetan. Hauek



uraz gain kudeatzen dituzte garraioak, hondakinak, energia, ingeniari-tza, eta abar.

Bigarren tesia egiazat ezarri dute-na: enpresa pribatuak daukate ezagu-tza, informazioa eta ahalmena... eta beharrezko dirua! “Estatuaren kon-trako kultura oligarkiko eta antiso-ziala ez zen sekula hain begibistakoa eta basatia izan uraren alorrean”, dio Petrellak. Leku askotan agintari-ek beren betekizun publikoetan amore eman dute talde pribatuen interesen mesedetan. Azkenerako jendeen buruetan sartu da Estatuak eta herri erakundeek ez daukatela gaitasunik lehentasunezkoa den ura bideratu eta kudeatzeko.

Hirugarren tesia, eta abangoardia itxura handiena duena, gizadia salba-

tu behar omen duen ur teknologiko-arena da. Orain enpresa erraldoiek beren teknologia erabiliko dute gero eta handiagoa izango dugun ur behar-rra asetzeko, uraren produktibitatea handituz (nekazaritzan, adibidez, ur gutxiagorekin uzta handiagoak lor-tzeko), ur zikinak tratatu eta birzikla-tuz, eta itsasoko ur gazia gezatuz, dagoeneko Bartzelonan, Israelen, Arabiar penintsulan, eta beste leku askotan ari diren moduan.

“Ur gezatua –idatzi du Petrellak– merkatuaren, industriaren eta finan-tzaren logikan ekoizten bada ez da gehiago izango biziaren emari bat, ondasun natural unibertsal bat, ‘biziaren doakotasunaren’ adibidea, guztien eskura dagoen ondasuna eta gizadiari eta espezie bizidun guztiei

dagokiena, giza eskubidea”. Hemen-dik aurrera ur teknologiko hori izan-go da Veoliak, Suezek, Aguas de Barcelonak edo Coca-Colak, Nes-tek edo dena delakoak ekoiztutako produktu derrigor erosi beharrekoa.

Esportaziorako eta salerosketara-ko ere balioko du. Europar Batasu-neko komisario batek otsailean esana omen du berak ez lukeela gaizki iku-siko Europak Ekialde Hurbilera ura esportatzea handik gasa ekartzearen truke.

Urteotan herritarren mobilizazio-ak ere aldaketak ezagutu ditu, kopo-razioen erasoen ordainetan. Uraren kasuan, hasieran borrokak ziren kutsaduraren eta urtegi erraldoien kontra. 1980ko hamarkadatik aurre-rra zerbitzu publikoak eraistearren eta uraren merkantilizazioaren kontra.

2010ean uste du Petrellak mundu-ko herritarrek lortu dutela ura giza eskubidetzat aitortua izatea, batik bat Hego Amerikako agintari batzuek egindako lanari esker. Tar-tean, ur zerbitzu publikoen aldeko urrats batzuk eman dira han eta hemen, esku pribatuetatik kudeaketa udal edo mankomunitateetara berri-ro pasatzea lortu duten hiriak, 2008an sortu zen European Public Water Network koordinakudea...

Honela bukatzen du Petrellak: “Gaur egun herritarren mugimen-duak ‘bihotz ideologikoan’ astindu behar du zibilizazio kapitalista tekno-merkantil eta finantzieroa (...). Munduko kapital pribatuek egin nahi dute biziaren, eta ondorioz ura-ren, jabe, eta horren kontrako mobi-lizazioa funtsean jokatu behar da plano ideologikoan: kulturalen, politikoan, zientifikoan”. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Iñaki Murua

Badaezpada ere

Zalantzen aurrean, badaezpada ere, Internetera jotzeko joera dugu aspaldian. Aste Santuko oporretan zeinek ez du horrelakorik egin? Berdin dio leku bat hautatzeko nahiz aukera bat ezabatzeko. Aurten, esaterako, mundu musulmana aztoratuta zebilela, eta Marokora joateko tentazioa izan arren, lurralde hori –hainbat informaziok leku ez segurutzat jotzen zuelako– aukeraz kanpo geratu da, badaezpada ere.

Baina, zein da gure kezka nagusia libre dugun egun bakoitzeko? Eguraldia! Badaezpada ere, Interneten begiratu ia datozen hamar egunetan zer eguraldi egin behar duen. Jaenera joango ote ginatke, Cazorla mendizerra ezagutzera? Kia, Interneten zioenez, eguraldi eskasa egingo zuen Andaluzia osoan eta badaezpada ere...

Zenbat jolas egin dezaketen gurekin egoera politiko-soziala dela-eta edo, beste gabe, eguraldia aitzakia/arraioi harturik? Eta zeinek ez daki, urtaro honetan bereziki, zeinen aldakorra den eguraldia? Gainera, ahaztu al zaigu zenbat aldiz huts egingen duten eta zeinen gutxitan asmatu? Guk loteria adina edo, baina badaezpada ere... ez gara joan nahiko genukeen paraje horretara joaten. Beste leku batzuk begiratzen ditugu eta arrautza frijitua non zangoa han! Zer kulpaa ote dauka Interneten eguraldi ona egingo duela jartzeko hainako indarrik ez daukan lurralde gizajoak? Eta guk hautatu dugun probintzian aurreikusitako eguraldia egin al du? Erabat asmatu al dute? Ez! Baina egokitzen asmatu dugu eta pozik ibili gara gainera. Jaenera joan bagina ere berdin asmatuko genuen, ziur nago, baina...

Gaztela-Leon deritzon erkidegoko probintzietan ibili gara, eta landa turismo etxeetan izan dugu aterpe. Jende oso atsegina topatu dugu kasu guztietan; ez dakit bizimodu hau ogibide bihurtu dutelako eta turiston menpe egotea beste aukerarik ez dutelako edo halako pertsonak egokitu zaizkigulako. Turistak, ordea, lanik gabe geratu uztera joan. Batzuk hipoteken menpe ere badaude eta, hala daudenak, gainera, euriborraren eraginpean lorik egin ezinik, agian. Hori bai eguraldi



DANI BLANCO

txarra, lanik eta soldatarik ez eta *eurigorra*! Euri gogorra izango da, bortitza, goian zerua eta behean lurra gelditzeko mehatxupean bizi beharra duen familiarena, bai. Horiek noiz esan edo egin ahal izango ote dute: badaezpada ere?

Egon garen auzo batean, senarra bertakoa izaki, auzoko dozena bat etxola landa turismoko etxe bihurtu zituen bikoteak. Gredos osoko aukera oparoen zela zioen, urte askoan, ingeleseko irakasle izandako emazteak. Lau artzain omen ziren auzoan bikotea landetxeen gaia jorratzen hasi zenean eta haiek ia-ia familiako bihurtu ondoren, urteen edo osasunaren eraginez itzaltzen joan ziren ahala, gero eta etxe gehiagoren jabe egin dira. Biak dira han urte osoz bizi diren bakarrak eta oraindik ere, lurra jotzen duten ahala erosi eta etxe gehiago berritzen ari dira. Dena eurek egin dute: arotz, igeltsero, arkitektu, peoi... eta benetan

emaitza txukun bezain atsegina lortu dute. Meritu galanta zutela iruditu zitzaidan, emazteak bereziki. Hark ematen baitzigun bere inguruko berri egunero, elkarrizketa ezin atseginagoak artetsu sortuz, esateko zein entzuteko patxada ez-ohikoa. Lastima, azken eguneko azken ordu laurdean jakin genuen, ezagutu ez genuen eta gu han ginen egunetan etorri ere egin ote zen ez dakigun senarra: Avilako Diputazioan diputatua dela eta udalean ere ba omen duela zereginen bat, badaezpada ere!


Hurrengo landetxean, biak ziren kanpotarrak, oso urrunekoa senarra eta ez hain gertukoa emaztea. Inor ez bertakoa baina hamar urte hauetan bezeroak mimoz zaindus ogibidea taxutu dute. Ondo bizitzeko beste ematen duela, bost gelako etxe txiki hark, zioten. Halako batean jakin genuen emaztearen aitona herri hartan farmazialaria izan zenaren semea zela, halaxe tokatu eta, bertan jaioa. Beraz, kasualitatez edo txiripaz, bietako bat jatorriz bertakoa zela esateko premian eta frogatzeko moduan zen eta hori, badaezpada ere, beti dator ongi.

“Goitik euririk ez dator baina, sustraiak heze ditugu” kantatu zuen Imanol Lazkanok 1991n badaezpada ere... Noski, ulertu egin genion baina ikastea ere komeni zaigu denoi, badaezpada ere! ■

‘Goitik euririk ez dator baina,
sustraiak heze ditugu’
kantatu zuen
Imanol Lazkanok 1991n
badaezpada ere...

ASTE HONETAKO

zozketa



Atxaspi Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Bittiria kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1



Tarpoon Urpekaritza

2 harpidedunentzat
"Discover Scuba" saiurako
bina sarrera

Kirol portua, A lokala - 7
Getxo BIZKAIA

www.divetarpooon.com

2



Inguru Abentura

Hasiberrientzako
eskalada ikastaroa
2 harpideentzako bina sarrera

San Juan kalea, 18
Albeniz ARABA

www.inguruabentura.com

3



Gipuzkoa Indoor Karting

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Iparaldeko autobidea, 433. irteera
Tolosa GIPUZKOA

www.indoorkartinggipuzkoa.com

4



Artium

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

5

AZKEN IRABAZLEAK (2273. Argia)

IBERNALO

• Inaxio Agiriano Bergaretxe (Donostia)

INDOOR

• Optika Zinkunegi (Donostia)
• Iñaki Urbistondo Plazaola (Azpeitia)
• Jose Luis Hormaetxea Alboniga (Bermeo)

KAFE ANTZOKIA

• German Kortabarria Igartua (Getxo)

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

• Teresa Alonso Herreros (Gasteiz)
• Antonio Amondarain Aizpurua (Andoain)
• Migel Anjel Mintegi Larrazza (Beasain)
• Enrique Llorente Silvestre (Donostia)

ILLIMANI

• Mila Apezetxea Loiarte (Hernani)
• Maria Asuncion Idoate (Iruñea)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

XABIER LETE GOGOAN

KANTALDIA

Antton Valverde
Pier Paul Berzaitz
Amaia Zubiria
Petti
Paco Ibañez
Joxean Artze

MAIATZAREN 14an, 22:00tan
Usurbilgo Oiardo Kiroldegia

Antolatzailea: Jexux Artze Kultur Elkarte

Sarrerak:

Usurbilen: Lizardi liburudenda eta Oiardo kiroldegia
Telekutxa: 943 00 12 00 edo www.kutxa.net
12€ aldeaz aurretik, 15€ egun berean

